

Herririk Herri | 6
ELAk UGT salatu du Pierburgen,
"askatasun sindikala urratzeagatik"

Kirola | 18
Durangaldeko Maratoi Erdia
lehiatuko dute domekan Urkiolan

Kultura | 7
'Gorantz erori' proiektuari buruz,
Antton eta Ramiro musikariek

**Ordu
aldaketa**
Zapatutik igandera,
03:00etan 02:00ak
izango dira



ERREPORTAJEA | 10-13



ETAk armak utzita, konponbiderantz

➤ Durangaldeko hildako biren senitartekoekin egon gara, eta hainbat herritar eta politikariren iritzien berri jaso dugu



M. Carmen Hernández

**"Giza eskubideen
edozein urraketagaz
identifikatzen naiz.
Sufrimendua
berdina da"**

K.A.



Ibon Garate

**"Ez dago dudarik
biktimei
errekonozimendua
zor zaiela, baina
biktima guztiei"**

J.C.

Durango | 2

Maristak-ek Panamako proiektua
martxan ipini du, 23 ikaslegaz

Zaldibar | 4

Elizaldeko plazaren historia
Ondare Jardunaldietan

Atxondo | 3

Igerilekuak hustu egin dira urez,
itxi eta hamar egunera

Abadiño | 6

Plenoa bertan behera, herritar
batek grabatu egin gura zuelako



Celeste

Jantziak

**astelehenetik
aurrera
Zabalik!**

- Egunean bertan Konpositzen ditugu jantziak, azpiak, gerrailak, Kremailerak, lepoak, hozalak, botoiak etab.
- Ospakizunetarako soineko eta jantziak eraldatzen ditugu
- Gortinak, etxeko arropak eta mahai-zapiak egiten ditugu

Askatasun etorbidea 10 behea - 48200 Durango - Tel: 94 407 17 23 - confeccionescelste@hotmail.es

HERRIRIK HERRI >

DURANGO

Iriondo familia "dezepzionatuta" Estrasburgoren erabakiagaz

Orain zazpi urte, Haroko kanpin-ean bizikletan zebilela, auto gidari batek Enaitz Iriondo durangarra harrapatu zuen, 17 urteko gaztearen heriotza eraginez. Harrezkero, hainbat arrazoi tarteko, gidariaren kontrako prozedura bat baino gehiago abiatu dute gurasoek. Justiziaren arloko estamentu guztietara jo dute, herri mailakoetatik hasi eta Europako Auzitegiraino. 2009an Estrasburgoko Auzitegian errekurtsioa aurkeztu zuten, eta asteon jakin dute nazioarteko auzitegiak euren errekurtsioa atzera bota duela: "Dezepzio handia izan da. Espainiako justiziaren gestio txarrari aipamen bat egingo ziotela espero genuen, gure urte luzetako borroka aintzat hartuko zutela, baina hori ere ez", dio Rosa Trinidad Enaitzen amak.

"Dezepzioa izan da; Espainiako justiziak gaia ez duela ondo kudeatu onartzea nahi genuen"

Ez dakite hurrengo pausoa zein izango den, baina argi du ez direla "besoak gurutzatuta" geratuko: "Egoera aztertuko dugu. Zerbait egingo dugu, bestela justiziagan sinesteri utziko genioke". ■ J.D.

> Bideoa: www.anboto.org

422 lagunek parte hartu dute Baqué lehiaketan

Durangoko gertaera historikoen gainean zen



Laura Liaño, Naiara Vidal eta Iker Ocejia.

Durangoko Turismo Bulegoak eta Cafés Baqué bultzatutako lehiaketak badu irabazlea: Naiara Vidal. 422 parte-hartzaile izan dira, eta zozketa bidez eman dute saria. Horrela, Ipad2 gailua eskuratu du Vidalek, Laura Liaño Baquéko marketing zuzendariaren eta Iker Ocejia turismo zinegotziaren eskutik. Ekainean azukre-koskorrak bana-

Auzotarren batzordeak eta Erraldek ez dute akordiorik lortu

Berrizen hiltegi berria egiteko finantziabideak aurkezteko epea 2011 urtea amaitu arte luzatzeko prest zegoen Auzotarren Batzordea (Herriako ordezkariak eta hiltegiak eragindako auzotar batzuek osatua), beti ere, hori bete ezik 2012ko lehenengo egunean jarduera bertan behera uzteko konpromisoa idatziz hartzen bazuen Erraldek. Alde bien arteko batzarraren ondoren Herriak jakinarazi duenez, "Erraldek ez du bermatu abenduaren 31 baino lehenago finantziazioa lortu dezakeenik. Ondorioz, negoziazio prozesua amaitu ondoren, berau hasi aurretik geunden egoera berean aurkitzen gara".

Erralde finantziazio bila

Erralderen esanetan, "Bizkaiko udaletara eta Aldundira" joko dute, "datozen egunetan". Aldundiagaz aste bi barru batzartuko dira. Udalei dagokienez, eskualdean Durango, Iurreta eta Zaldibar dira Erralden ez dauden herriak eta horietara joateko asmoa ere badute: "Bizkaiko hiltegi bakarra gara eta zerbitzu publikoa eskaintzen dugu".

Bitartean, azpiegituren jabetza duen Durangoko Udaleko hirigintza batzordea azaroaren 2an batzartuko da. ■ J.D.



Maristak ikastetxeko ordezkariak Panaman izan dira proiektuaren jarraipena egiten.

Panamako proiektua abiatu dute Maristek, 23 ikaslegaz

Elektrizitatearen arloan Hezkuntza Profesionaleko kurtsoa hasi dute

Maristak ikastetxea Padre Arrupe izeneko proiektu gaiztatzen dabil Panamako El Chorrillo auzunean. Batek, inguru hura suspertzen lagundu gura dute; bestetik, hango Bonifacio Pereira zentroan elektrizitateagaz lotutako Hezkuntza Profesionaleko iraupen luzeko kurtsoa sortu dute.

Maristetako ordezkariak han izan dira jarraipena egiten. Julen Elgeta proiektuko arduradun, Javier Uriá proiektuko koordinatzaile eta Ricardo Zenikaonandia

Maristak ikastetxeko ordezkariak bertan izan dira jarraipena egiten

Etorkizunean Interneten bidez hartu-emanak sendotu gura dituzte ikasle eta irakasleekin

Maristak-Durango ikastetxeko zuzendariak ikusi dutenez, 23 ikasleko lehenengo promozioa lanean hasita dago eta azpiegiturak ere eginda daude. Kurtsoaren inaugurazioan Panamako lan arloko ministroa egon zen.

Etorkizunari begira hartu-emanak internetez sendotu gura dituzte; bideokonferentzia bidez, ikasleen arteko txatak sustatuz, irakasleen arteko foro teknikoekin... Panamako ikasle onenei Durangon egoteko bekak sortzea ere gura dute. ■ J.Derteano.

Madrilgo Kongresuan EAJko diputatu den Josu Erkorekak Azterlanen azpiegiturak bisitatu zituen eguaztenean. Hantxe izan ziren, besteak beste, Durangoko eta Iurretako alkate Aitziber Irigoras eta Iñaki Totorikaguena eta Amankomunazgoko presidente Oskar Zarrabeitia ere.

"Azterlan Euskadiko zentro teknologikoen arketipoa da", Erkorekaren iritziz

Erkorekak Azterlaneko Julian Izagaren eskutik jakin zuen zentro teknologikoan egiten dutenaren berri: "Azterlan Euskadiko zentro teknologikoan arketipoa da. Laboratorio txiki moduan sortu zen eta apurka hazten joan da, lanaren poderioz". Erkorekak etorkizuneko giltzarri moduan "ikerketa, berrikuntza eta hori guztia enpresen ekoizpen prozesuetara aplikatzeko abilezia" aipatu zituen. ■ J.D.

Azterlanen azpiegiturak bisitatu ditu Josu Erkorekak

Ekonomia garatzeko teknologia zentroek duten garrantzia nabarmendu du EAJko diputatuak



Azterlaneko Julian Izagak eman zion zentroaren berri.

ELORRIO

Aurrekontuetako kreditu aldaketen berri eman dute

56.000 euro eman dizkiote Ibarra eta gasolindegiko biribilguneak lotzeko azterketari; Aldapebeitia jauregia berritzeko 41.000 euro bideratu dituzte



Aldapebeitia jauregia berritzeko kreditu aldaketa onartu du udalak.

Elorrioko Udalak Ibarra eta gasolindegiko biribilguneak lotzeko errepidea egin aurretiko ikerketa teknikorako kreditu aldaketa onartu du: 56.000 euro. "Ipar-ekialdeko eremuan trafikoa hobetzeko proiektu garrantzitsua da", Joseba Mujika alkateorde eta hirigintza zinegotziaren ustez. Dioenez, kanpo-eratzuna egitea aurreikusita dago, Berriz eta Durangorako trafikoa Elizburu eta San Pio kaleetatik ateratzeko.

Mujikaren arabera, "ondare historiko eta artistiko hori zaindu" egin behar da

Aldapebeitia jauregiaren berritze eta egonkortzerako 41.000 euroko aldaketa egin dute; egituraren arazo handiak ditu. Mujikaren arabera, "ondare historiko eta artistiko hori zaindu" egin behar

da, etorkizunean jaso dezakeen erabilerari begira, batez ere.

EAJk 8.260 euroko beste aldaketa bat proposatu du, estali bako igerilekuak egitea teknikoki egingarria ote den aztertzeko. Bilduk kontra bozkatu du, aldaketa atzera boteaz. Bilduren ustez, kirol-azpiegiturretan beste lehentasun batzuk ditu herriak. EAJk, jarrera hori "penagarria" dela deritzo, "ilusioa sortzen duen proiektua delako". ■ M. Onaindia

IURRETA

Mali ezagutzeko gonbita egingo dute azaroan

'Munduko Paisaiak: liburutegiak topaleku' ekimenak Mali hartuko du hizpide aurtan

Lehenago Rumania eta Maroko legez, aurtan Mali izango du ardatz *Munduko Paisaiak: liburutegiak topaleku* ekimenak. Jaurilaritzako Liburutegi Zerbitzuak Iurretakoa hautatu du beste behin, beste bederatziz liburutegigaz, Biblioteken Nazioarteko Eguneko ekimenarako. Bibliotekak eta Fasoden

(80tik gora bazkide dira, Durangaldekoak eta Bilbokoak) elkar-reak egitarau zabala lotu dute "Mali Iurretara eta iurretarrak Malira hurreratzeko", Iñaki Totarikaguena alkateak dioenez.

Horrela, azaroan 2tik 16rako egitaraua osotu dute: erakusketak, bideoforuma, jaia, antzerkia...



Ibarretxe kultur etxean egin dute aurkezpena aste honetan.

ATXONDO

Igerilekuak apurtuta daude eta urik barik geratu dira

Atxondoko igerileku handia apurka-apurka ura galtzen joan da azkenaldian. Arrakala batzuk zituela uste zuten, baina azken hile honetan arazoa pentsatu baino handiagoa izan dela ikusi dute; igerilekuak zarratu eta hamar egunetara ur guztia galdu du.

Konpontzeko bide bi aztertzen dabilta; kostua 50.000 eta 80.000 euro bitartekoa izango da

Rosa Elizburu Atxondoko alkateak azaldu duenez, igerilekuak konpontzeko bide bi aztertzen dabilta. Aukera bat azpiegitura guztia kentzea da; aberia aztertu, konpondu eta berriro igerilekuko egitura osoa jarriko luke. Beste aukera igerilekuen gainetik plaka bat jartzea izango litza-teke, eta ondoren gainetik azulejuak ipintzea. Igerilekuak konpontzeak 50.000 eta 80.000 euro bitarteko kostua izango luke. ■ A.U.

Zaborraren eta igerilekuen tasak igoko dira gehien

KPIaren igoera aintzat hartuta, tasak %3 igotzea proposatu dute Atxondoko udalbatzan. Zaborraren zerga eta igerilekuetako prezioak izango dira salbuespena.

Zabor biltzetaren tasa %5 igoko dute etxebizitzaren kasuan, eta fabrikei ere tasa igotzea proposatu dute, tamainaren arabera, progresiboki, %20 raino. Igoeraren arrazoia azaltzerakoan, Juan Jose Nora alkateordeak esan du zaborretan batzen dena Amankomunazgoari ordaintzen zaiona baino gutxiago dela; Amankomunazgoagaz 23.500 euroko zorra dauka udalak.

Igerilekuen prezioak %15 eta %18 bitartean igotzea proposatu dute. Azaldu dutenez, "denbora askoan" egon dira prezioak igo barik, eta, gainera, orain gas-tua edukiko dute, apurtuta daudelako. Rosa Elizburu alkateak dioenez, batez ere kanpoko herri-tarrentzako prezioak igo dituzte: "Inguruko herrietan kanpo-tarrentzako prezioak hemen baino garestiagoak dira". ■ A.U.

GARAI

Auto gidari bat hil da, arbola bat gainera jausita

Oizerako bide batean gertatu zen ezbeharra, astelehenean; 69 urteko garaitarra hil zen

Istripua astelehen goizeko 09:15ean gertatu zen, Oiz mendira doan mendiko pista batean, BI-3341 errepidetik gertu, Garai eta Goiuria artean. Ertzaintzak azaldu duenaren arabera, haizearen eraginez arbola handi bat pista honetatik zihuan lur orotako automobilaren gainera jausi zen. 69 urteko gidaria ibilgailuaren

barruan harrapatuta gelditu eta bertan hil zen; medikuek ez zuten ezer egiteko aukera izan.

Behin tramite judiziala egin da, gorpua Bilboko institutu forensera eraman zuten. Ertzaintzak atestatua zabaldu zuen gertatutakoa argitzeko. Martitzenean egin zuten hildakoaren aldeko hileta elizkizuna.

Haizetean

Astelehenen haize bolada zaka-rrak izan ziren inguruetan, eta Oizen bertan neurtu zituzten haize indartsuenetakoak: 129 km/h abiadurakoak. ■ M.O.

Arbola handi bat pistatik zihuan automobilaren gainera jausi zen

GALLASTEGI

gallastegiharategiak@euskalnet.net

1955 ean sortua

Zalduasolo, 8
946 827 038
48250 ZALDIBAR



Baimendutako harategia
Euskal Okela
Carnicería autorizada

Antso Estegiz, 1
946 812 247
48200 DURANGO

▣ ZALDIBAR



Jaietan balkoitik balkoirako bertso saioa egiten dute Elizaldeko plazan. Delfin Zubizarreta

Elizaldeko plazaren historiaren berri Ondare Jardunaldietan

Bihar goizean izango dira ekitaldiak; lehenengo bisita gidatua egingo dute, 10:30ean, eta gero bertso-pilota zein dantza erakustaldia, 13:30ean

Zaldibarko Elizaldeko plazaren historia ezagutzeko aukera eskainiko dute, bihar, Gerediaga elkarteak, Urkiola landa garapenerako elkarteak eta eskualdeko zenbait udalek eratzten dituzten Ondare Jardunaldien baitan. Goizeko 10:30ean bisita gidatua burutuko dute, frontoitik irtenda. Eguerdian, 13:30ean, bertso-pilota jaialdia eskainiko dute, eta amaitzean nesken sokadantzak hartuko du plaza.

1800. urtearen inguruan eraiki zuten Zaldua plaza izenez ere ezagutzen dena. San Andres eliza buru, bere atariak udaletxeari eta eskolari lekua eman zion, eta kanpandorreari herri-erlojuaren

1880 inguruan eraiki zuten Zaldua plaza izenez ere ezagutzen dena; hainbat zerbitzu biltzen zituen

dorrea atxiki zitzaion. Agintaritza zibila, eliz aginpidea, zerbitzu publikoa, etxebizitza eta aisialdia biltzen ziren espazio publiko hartan. Antolatzaileen esanetan, XVIII. eta XIX. mendeetan herri-kulturak balio berri bat eskuratu zuen: ilustratuek interesa azaldu zuten musika, dantza, kirol, hizkuntza eta abarreko.

Bisitarako erreserba egiteko europaondarea@gmail.com helbidea sortu dute. ■ M. Onaindia

▣ DURANGALDEA

Domu Santu, joandakoez akordatzeko eguna

Hildakoak gogora ekartzeko eguna ospatuko da martitzenean; Domu Santu eguna, hain zuzen ere. Hilerrietan goizetik iluntzera arte nabaritutako dira jendearen joan-etorriak, azaroaren lehenean urtero geratzen den legez. Bakoitzak bereak norbere erara oroitzen dituen arren, asko eta asko dira santu guztien egunean hilerrietara bisita egiteko ohitura mantentzen jarraitzen dutenak.

Askok eta asko dira hilerrietara bisita egiteko ohiturari eusten jarraitzen dutenak

Joandako senide zein lagunen hilobi eta inguruak atontzeko aprobetxatu ohi da, gainera, egun hori. Askok, bestalde, jendetza ekidin guran, aurreko egunetan egiten du osteratxo kanposantura, lore-sorta eta gainerakoak hartuta. Ezohiko itxura hartzen dute egunotan inguruko hilerriek, horrenbestez, lorez jantzita. ■ M.O.

Izarren Distira lehiaketa prest zapatuko gala erakustaldirako

Elorrioren, Berrizen eta Durangon castingak egin ondoren, Izarren Distiraren gala erakustaldia egingo dute, zapatuan, Durangoko San Agustin kulturgunean. Gazteen sormena bultzatzea helburu duen ekimeneko hautaketa proba epaimahai profesional batek burutu du, gazteei aholkuak eman eta euren ikuskizuna hobetzen laguntzeko.

Aurtengo berrikuntza nabarmena ikus-entzunezkoak aurkezteko aukera da. Beraz, parte hartzen duten gazteek bideo klipak, film luzeak zein bestelako ikus-entzunezkoak aurkeztu ditzakete. Sarietarako dagokienez, "euskara onari" sari nagusia irabazten dutenek bideokamera bana eramango dute etxera. "Ikuskizun onena" aurkeztzen dutenek argazki kamera bana eramango dute, eta hirugarren sariagaz MP5 bana. Informazio gehiago jaso gura duenak eskura du izarrendistira.com webgunea. Tuentin ere badago informazioa jasotzeko modua. ■ J.G.

▣ BERRIZ

Hiru igoera onartu dituzte datorren urteko ordenantza fiskaletarako

Ezarritako aldaketekin bakarrik, proposamen "jasangarria" dela uste dute ordezkariak

Berrizko udalbatzak 2012rako ordenantza fiskalak onartu ditu, aho batez. Zerga eta tasa gehienak ez igotzea erabaki dute, EAJk eta Bilduk proposamen bateratua aurkeztu eta gero.

Jarduera ekonomikoen gainerako zerga %2,5 igoko dute, EAJren ekimenez; gainerakoak berdin geratuko dira. Tasetan, zabor biltetako eta kirol zerbitzuak ere %2,5eko igoera izango dute. Roland Isoird alkateak azaldu duenez, lan-hitzarmenaren ondorioz kirol-zerbitzu enpresek %14ko igoera aplikatuko dute, Berrizko Udala tasetan igoera ezartzerantz behartuz.

Jarduera ekonomikoen zerga %2,5 igoko dute; gainerakoak lehengo moduan geratuko dira

Haurreskolako plaza berriak, hurrengo ikasturterako

Gobernu taldearen lehentasunen artean dago hezkuntza eremua, eta horren baitan Haurreskolaren hedapena kokatzen da. Arantza Baigorri alkateak azaldu duenez, udalean sartu zirenean Partzuergoagaz batu ziren plaza faltaren arazoaz berba egiteko, baina "ordura arte Partzuergoan ez zeukaten informaziorik".

Hartu-emanetan egon dira Partzuergoagaz, baina, "tamalez", ez dute lortu

21 plaza horiek 2012ko irailera egongo direla ziurtatu dute Partzuergotik

"Bitartean udaletik pauso guztiak eman ditugu erabiltzen ezzen modulua bere lekuan jarri eta ekipatzeko; horrela, Partzuergoak aurrekontuetan sartuz gero, urtarrilerako guztia prest egon zitekeen", dio Baigorri. Orduetik hartu-emanetan egon dira, "baina tamalez, ezin izan dugu lortu", dio. Beste herri batzuekin konpromisoa hartuta izatea eta diru falta izan dira arrazoiak.

Partzuergotik ziurtatu dute 21 plaza horiek 2012ko irailera egongo direla. ■ M.O.

▣ OTXANDIO

XXIII. Margo Lehiaketa egingo dute domekan

Urriaren 30eko margo lehiaketan parte hartuko dutenen euskarriak 09:00etatik 10:00etara zigituko dituzte Bolalekuan. Lanak, 14:30 baino lehen aurkeztu beharko dira toki berean, eta sari banaketa 17:30ean egingo dute. Irabazleak 700 euro jasoko ditu; bigarrenak 500 euro eta hirugarrenak 350. Herriko onenak 200 euro irabaziko ditu.

Gaia aukeratzeko orduan antolatzaileek ipini duten baldintza bakarra haizetara eta Otxandion edo inguruetan izatea da. Neurrietarako dagokionez, 30X43 zentimetrokoak izan behar dute gitxienez. Aurkeztu diren lanekin salmenta-erakusketa ere egingo dute. Udalak lehiaketa horretako partaideen bazkaria ordainduko du.

Mikologia erakusketa

Domekan beste ekimen bat ere badago. Kementsu eta Miru Gain mendigoizale elkarteek XXII. Mikologia Erakusketa antolatuko dute udaletxeko arkupean. Perretxiko dastaketa ere egingo dute. Bihar 09:30ean plazatik irtengo dira perretxiko bila; bere kabuz doanak 13:00ak arte eraman ditzake Kultur Etxera.

Gaur da, bestalde, argazkigintza, sabel dantza, egurlaneketa eta joskera tekniken ikastaroetan izena emateko azken eguna; udaletxean egin behar da. ■ J.D.

▣ MALLABIA

Lumagorri oilasko pintxoak banatuko dira urriko jaietan

Gaur, 16:30ean, umeentzako tailerrak egingo dituzte eskolako frontoian. 18:00etan, txupinazoa jaurtietan karteladan batuko dira. Elizpeko pilota txapelketako finala 19:00etan jokatu dute. Tabernetan bertso-poteoan Beñat Ugartetxea eta Gorka Imazek abestuko dute. Lumagorri oilasko pintxoak jateko aukera eskainiko dute, 1,50 euroren truke. Erromeria Trikiliku taldeak giroa egingo du.

Zapatuan, 16:00etan, umeendako olinpiadak antolatuko dituzte. Gauean, Gatibu, KOP, Zain eta Esne Beltza taldeek kontzertua eskainiko dute.

Domekan, meza ondoren, pilota partidak jokatu dute. Arratsalderako, mus, tute, asto eta briska txapelketa antolatu dute. Aizkolariaren erakustaldia eta txokolatada plazan izango dira. ■ J.G.

Zapatuan, Gatibu, KOP, Zain eta Esne Beltza taldeek kontzertua eskainiko dute

Amairan, ordenantza fiskalen zein udaleko gainerako gaien informazioa herritarrei helarazteko bide berriak aztertzeaz egin zuten berba, aurrera begira jorratzeko eztabaidagaia dela ondorioztatuz. ■ M.O.

ALKIMAX

Alquilamos soluciones

ORGAK, PLATAFORMAK,
HONDEATZAILEAK,...
ERABILTZEAN
SEGURTASUNA
ZAINTEKO
IKASTAROAK

Eitua industrigunea, 71C • 48240 BERRIZ (Bizkaia) • 94 682 45 50 • alkimax@alkimax.net

BEROKUNTZA

Badator euria eta hotzaren garaia...



Hezetasun-kengailuak



Infragorriak



Erradiadoreak



Aire kainoiak



Farolak

JASOGAILUAK



Beso artikulatuak



Artaziak



BONBAK



Motobonbak



Bonba
urperagarriak

www.alkimax.com



Durangaldean labur

Orfeoia eta Kriskitin, lehen gonbidatuak elkarretaratzean

Andereak elkarteak indarkeria sexistaren kontrako kontzentrazio kanpaina berria hasi du. Eguenero, 20:00etan, elkarretaratzeak egiten dituzte Andra Mariko elizpean, eta hemendik aurrera, astero, Durangoko elkarte bat gonbidatuko dute. Atzo Kriskitin dantza taldea egon zen; joan zen asteko gonbidatua, berriz, Sanfaustoetako pregoilari eta txupinero izan den Durangoko Orfeoia izan zen.



Gerraosteko durangarren bizipenak eta sentipenak

Karrika antzerki taldeak *Lurra astinduz* lana estreinatu zuen joan zen barikuan, Durango 1936 elkarteak eratutako *Agurrik Gabeak* ekimenaren baitan. Santa Ana plaza agertoki hartuta, irudi, soinu eta narrazioekin gerraosteko Durango islatu gura izan zuten. Jende ugari bertaratu zen, eta antzezlanaren aurretik ekitaldi xumea ere egin zuten.



ABADIÑO

ELA eta UGTren arteko auzia Pierburg-eko Europako ordezkari izan

ELAk "askatasun sindikala urratzeagatik" UGTren kontra aurkeztu zuen demanda onartu dute

Komunikabideetara bidalitako oharrean jakinarazi du Pierburg SA (Carbureibar) enpresako ELA sindikatuak, "askatasun sindikala urratzeagatik" UGTren kontra aurkeztu zuen demanda onartu egin duela Lan arloko Bilboko 4. epaitegiak.

ELAk azaldu duenez, enpresaren Europako batzordean ordezkari bat dagokio Abadiñoko zentroari, eta "orain arte, hauteskunde sindikalen aurretik zegoen

Enpresa Batzordeko UGTko presidentea izan da batzorde horretan enpresa ordezkatu duena".

"Indar korrelazioa aldatu egin da hauteskunde sindikalen ostean", dio ELAk, eta "Komiteko 13 kideetik 8k erabaki dute beste ordezkari bat joan behar dela Europako batzordera". Hori horrela izan arren, Lan Epaitegietan aurkezturiko demandan ELA salatzen duenez, "UGTko ordezkaria izan da, Enpresako Zuzendaritzaren ezinbesteko laguntzagaz, Abadiño ordezkatzeko ibili dena".

Lan arloko epaitegiak arrazoia eman dio ELAri, eta "zuzendaritzak eta UGTk gehiengoaren erabakia ez errespetatzeko zeukaten intentzioa zapuztu du." ■ I.E.



Lan arloko epaitegian aurkeztu zuen ELAk demanda.

Plenoa bertan behera, eta hurrengoa atek itxita

Bertan behera utzi zuen Jose Luis Navarro alkateak, udalaren Uren Partzuergorako sarrera eztabaizatzeke aurreikusi zuten eguazteneko udalbatzarra. Hurrengo plenoa atek itxita egingo dute iragarri zuen alkateak.

Aurretik, publikotik udalbatzarra bideoan grabatzen zebilen herritar bati grabatzeari uzteko eskatu zion alkateak; "udal honetako gehiengo politikoak ez du grabatzerik nahi" argudiatu zuen. Herritarrek, abadiñarrek "udaleko erabakien berri izan dezaten" grabatzen jarraituko zuela erantzun zion.

Aulkitik altxatu, plenoa bertan behera utzi, eta hurrengo plenoa—besteak beste, Abadiño Ur Partzuegoan sartu ala ez eztabaizatzeke deitutakoa— atek itxita egingo dutela iragarri zuen Jose Luis Navarro alkateak. ■ I.E.

Zelaietako jubilatuen etxeko Aste Kulturala

Azaroaren 21etik 26ra burutuko dituzte ekintzak

Bost jarduera biltzen dituen Aste Kulturala antolatu dute, azaroaren 21etik 26ra, Zelaietako erretiratu-egoitzak eta udalak.

Fibromialgiari buruzko berbaldi bategaz emango diote Aste Kulturalerako antolaturiko egitarauari hasiera, azaroaren 21ean: Txanportakultur etxean 19:00etan ipini dute horretarako hitzordua.

Durangoko Gora Gora antzerki-taldearen *La terracita de doña Paula* antzezlanaren emanaldia antolatu dute, bestalde, azaroaren 22rako, Txanportan.

Oskar Tejedorren *Cuidadores* filma emango dute, Donostiako San Telmo Museora irteera egingo dute eta bazkari bategaz itxiko dute egitaraua. ■ I.E.

MAÑARIA

Lau herritako dantzari gaztetxoak Euskal Jaian

Andra Mari dantza eta abesbatza elkarteak antolatu du urriaren 30eko jaiko egitaraua

Durangaldeko lau herritako dantzariak hartuko dituzte urriaren 30eko, domekako, Euskal Jaian Mañarian. Elorrio, Atxondo, Abadiño eta Durangoko taldeek hartuko dute jaialdiaren aurtengo edizioan parte.

Talde bakoitzetik 16 dantzari gerturatzea aurreikusi dute Andra Mari elkarteak antolatzaileek, eta goizean goizetik egitaraua dute prest.

Elorrio, Atxondo, Abadiño eta Durangoko gaztetxoek taldeek jardungo dute domekan Mañarian

Kalejira egingo dute lehengo, 12:00etan hasita, mañariaren etxeetan bazkalduko dute, eta talde guztiek elkarrekin Alardea eskainiko dute. Eguraldiaren arabera, herriko plazan eta frontoian egingo dute 17:00etako dantza emanaldia. ■ I.E.

Mañarian zehar kalejira egingo dute talde guztiek 12:00etan, eta Alardea 17:00etan, herriko plazan

IZURTZA

Hainbat herritar argirik barik eguen goizez, sute bategatik

Eguazten gaueko haize boladek botatako arbola batek argi-endar kablea apurtuta sortu zen, suhiltzaileek azaldu dutenez, sutea.

Eguen goizeko 06:00etatik 09:00ak aldera arte, sua amatazkeko lanean jardun zuten Iurretako suhiltzaile-etxetik gerturatutako suhiltzaileek: sei ibilgailu behar izan zituzten.

Argi-endar kable bat apurtu zuen eguazten gauez haizeak botatako arbola batek

Gertakariaren eraginez, eguen goizean zehar argirik barik egon dira Mañarian eta Izurtzako inguru batzuetan.

Abiadura Handiko Trena egiteko obren barruan dagoen tunel ingurutik Izurtzako gasolindegirainozabaldu zen sua. "Durangoko herri baso batzuk, eta Izurtzako bi-hiru baso pribatu hartu" zituen suak, lekuko batek Anbotoriesan zionez. ■ I.E./A.B.

HONDA
STIHL
PASQUALI
SAME
BCS
CARON
VIKING

JUAN BERISTAIN
NEKAZAL TRESNAK

Salmenta eta konponketa

Oidor Berriozabalbeitia, 14 • 48230 Elorrio (Bizkaia)
Tel-Faxa: 94 623 18 03

KULTURA[>]

MUSIKA > ELKARRIZKETA

“Oso inpulsihoa izan da kantak sortzeko modua”

Antton abeslariagaz eta Ramiro bateria-jotzaileagaz batu gara asteen. Lander, Txaber eta Mikel taldekideekin batera Plateruenean aurkeztuko duten ‘**Gorantz erori**’ proiektuari buruz jardun dute

Aurretik, urteetan musika arloan jardun-dakoak batu zarete proiektu honetan. Noiz eta zelan batu zineten?

Antton: Lor, Malo edo Edan taldeetan ibilitakoak gara. Nahiko gura barik sortu zen proiektua, iaz. Lander eta ni aspalditik ibilitakoak gara elkarrekin kantuak atontzen. Orain urte bi, Abadiñoko Gaztetxearentzat *Azken akelarerraino* kanta sortzeko elkartu ginen baita, Ramiro eta biok. Taldekide guztiok proiektu honetan ipinita daukagu orain arreta osoa.

Aurretik egin izan duzuenagaz ez dauka, baina, zerikusirik...

Ramiro: Orain artekoagaz ez dauka zerikusirik; sorpresa gehien, beharbada, Anttonen jarraitzaileek hartuko dute. Bere ize-na darama, baina beste gauza bat da. Oso pozik gaude diskoan lortu dugun soinuagaz, eta zuzenean ere indartsuak dira kantak. Oso zuzenak izango dira kontzertuak.

Musikaren mundutik aldenduta egon zara azkenaldian, Antton?

A.: Sentsazio hori eman dezake; denboraldi batean kanpoan ibili naiz, eta baliteke azken aldian isilago aritu izana, baina beti jarraitu dut musikagaz lotuta.

Talde moduan diharduzue, beraz, astero-ko entseguak eginez eta abar...

A.: Bai, sarritan elkartzen gara entseguetarako, gainera. Antton izena daraman proiektua izan arren, talde moduan funtzionatzen dugu; talde soinuak dauka musikak, eta ize-nak pertsonifikatzera eraman gaitzakeen arren, talde izaera osoa daukagu.

Zergatik alboratu duzu bakarlari moduan jardutea? Hautu kontzientea izan da?

A.: Parte batean bada kontzientea. Hainbat arlotan, bakarrik jardutea baino askoz gustukoagoa dut talde-lana. Ekarpen handia egiten du taldeak: asko ikasten dugu elkarrengandik, eta momentu onak ere askoz gehiago bizi dituzu. Taldearen soinuak askoz gehiago betetzen nau.

Kantak sortzen diren sasoia ere gehiago disfrutatzen da taldean?

A.: Askoz betegarriagoa da, bai. Askotan zuk daramazun ideia asko aldatzen da lokalean; sarritan, ia amaituta zegoela uste zenuen kanta bati buelta osoa ematen diozu taldekideekin landu eta gero.

Zelakoa izan da sormen prozesua?

A.: Oso inpulsihoa izan da: ia konturatu barik joan ziren kantetarako ideiak sortzen.

Zelan sortzen dituzue kantak? Denok elkarrekin egiten duzue?

R.: Lokalera eramaten du Anttonek oinarria. Ondoren, horren gainean lantzen du Landerregaz kantaren egitura, eta gerotaldekide guztien artean osatzen dugu.

Udatik hona sortu duzue guztia?

A.: Uda aurretik sorturiko kantak ontzen jardun dugu udan, eta grabazioari ekin diogu uda eta gero. Grabazioa eta grabazio ondorengoak amaituta, zuzenekoak prestatzen dihardugu orain, azken aldian.

“Ekarpen handia egiten du taldeak: asko ikasten dugu guztiok elkarrengandik”

Non eta zelan egin duzue grabazioa?

R.: Ondarroako Santos Records estudioetan egin dugu. Oso grabazio erosoa izan zen; teknikaria aspaldiko laguna dugu, eta etxeko giroan egon ginen.

Kolaboratzaileak eduki duzue?

A.: Aiora Renteriak (Zea Mays) abesten du *Ohe hutsegiak* kantan. Oso egun polita iga-



I. Urizar

“Prestutasun osoz hartu zuen Aiora Renteriak ‘Ohe hutsegiak’ kantan kolaboratzeko proposamena”

ro genuen beragaz. Kanta egin genuenean, zera pentsatu genuen: “Ze ondo joango litzatekeen hemen Aioraren ahotsa”, eta prestutasun osoz hartu zuen proposamena. *Hartu arnasa* kantako letra Sustrai Colinak idatzi du, eta beste kanta bat Amets Arzallus, Sustrai Colina eta Endika Zarrabeitiaren bertsioetan dago oinarrituta. ■ I. Esteban

Gorantz erortzea: zortea lagun, zutunik jausteko era lege ulertuta



Baga-Biga disketeagaz, Zabaltzen-en bitartez egingo dute Anttonek eta taldeak *Gorantz erori* diskoaren banaketa. Horrez gainera, baina, hasieratik eduki dute pentsatuta diskoa internetez ere eskaintzea, doan. Sare sozialak ere asko erabiliko dituzte musika zabaltzeko, diotenez.

Gorantz erori ipini diote izenburua diskoari. “Kanta guztiak bilduko zituzten hitz batzuk bilatzen aritu ginen, eta horra ailegatu ginen”, azaldu digu Anttonek. “Batetik, izenburuaren esanahi literalari begiratuta, gorantz erortzea zutunik jaustea moduan ulertzen dugu: zortea edukitzea. Konzientea gara, hau dena zelan sortu den ikusita, zortedungarela. Bestetik, gorantz erortzearena, gauzak

ulertzeko modu bat ere iruditzen zaigu: jausi eta berriro altxatuta ikasten dela bizitzan gehien”. Kontraesan puntu bat dauka, Antton taldeko abeslariak eta Ramiro bateria-jotzaileak onartzen dutenez, izenburuko esaldiak, “baina kontraesana ere bagara”.

Izenburuaren zergatia edo azalpena entzun eta diskoak mezu baikorra helarazten duen galdetuta, baietz dio Anttonek: “Kanta batzuek hasieran iluntasun puntu bat daukaten arren, argitasunez amaitzen dira”.

Gitarrak, baxua, perkusioa eta pianoa eta sintetizadoreak uztartzen dituzte taldean: “Beste soinu batzuk erabili gura izan ditugu, eta gauza berria izan da taldean pianoa barneratzea”, azaldu digu Ramirok: “Kantei indar handia ematea lortu dugu”.

Ibon Urizar elorriarrak egindakoa da diskoaren diseinua eta azaleko irudia, eta oso pozik daudela kontatu digute musikariek; diskoaren izaeragaz bat ei dator azala ere.

HISTORIA > ZIKLOA

Erdi Aroko gizarteak baztertzen zituenen buruzko hitzaldi sorta

Azaroaren 3 eta 4rako antolatu du Krimenaren Historiaren Durangoko Zentroak, Erdi Aroko baztertuei buruzko jardunaldia. Arte eta Historia Museoan izango dira hitzorduek

Delituaren ataria: Erdi Aroko gizartearen baztertutak izenburupean antolatu du Krimenaren Historiako Durangoko Zentroak, aurten, berbaldi zikloa. Zikloaren bederatzigarren edizioa izango da Durangoko Arte eta Historia Museoak azaroaren 3an eta 4an hartuko duena.

Librea eta doakoa izango da zikloaren barruan antolatu dituzten ekitaldi guztietarako sarrera, eta, aipatu bezala, azaroko lehenengo egunean eta barikuan izango dira ekitaldi guztiak.

Azaroaren 3an, Aitziber Irigoras alkateak, Jon Kepa Garro Arte eta Historia Museoako zuzendariak eta Krimenaren Historia Museo-

Azaroaren 3an,
09:30ean, egingo dute
zikloaren irekiera

Unibertsitateko
irakasleek emango
dituzte berbaldiak

Mahai-inguruak eta film
emanaldiak ere izango
dira zikloaren barruan

ko Iñaki Bazan zuzendariak egingo dute zikloaren aurkezpena.

Valladolid, Salamanca, Cordoba, Malaga, Zaragoza, Cadiz, Valentzia, Kantabria eta Euskal Herriko unibertsitateetako irakasleek eskainiko dituzte berbaldiak.

Besteak beste, Erdi Aroko gizarteak baztertuei buruz zeukan irudiari buruz, prostituzioari eta sodomiari zein ospitaleko harreari buruz jardungo dute.

Zikloaren barruan, bestalde, mahai-inguruak, film emanaldia eta Durangon zeharreko bisita gidatua ere egingo dute azaroaren 3 eta 4rako Krimenaren Historiaren Durangoko Zentroak antolatutako jardunaldietan. ■ I.E.

MUSIKA > DISKO BERRIA

'Karenka' bigarren lana herriz herri aurkezten dabil Xarma

Eskoriatzako Inkernu tabernan egingo du disko berriaren aurkezpena Xarma laukoteak



Urriaren 28an, gaur, Eskoriatzako Inkernu tabernan egingo dute Xarma taldekoek bigarren diskoaren aurkezpena. Kanta berriak ez eze, pare bat kanta zahar ere joko dituzte kontzertu horretan.

Laukote legez baina bateria-jotzaile berriagaz jardungo dute hemendik aurrerako lotuta dauzkaten kontzertuetan Berriz eta Ondarroako Xarmako musikariak: aurretik, besteak beste, Keike taldean aritutakoa den Denis Alberdi sartu da orain arte taldean jardun duen Froufe berriztarraren ordez. Uztailera azkeneko asteetan sartu zen Denis, baina Froufek grabatu du bateria.

Bi astetan egin zuten, abuztu amaieran, Danbaka maketa lehiaketaren saritzat jaso zuten disko grabazioa, Arrasateko Shot estudioan. Bigarren diskoa du *Karenka*, 2010ean kaleratu zuenaren ondoren, Xarmak.

Lehenengo diskoagaz alderatuta, honetan, taldearen eta kanten nortasuna zehaztuagoa dela azpimarratu dute taldekideek. Danbaka maketa lehiaketa irabazi zutenetik sorturiko dozena bat kanta bildu dituzte disko honetan. Doinu gogorragoak eta azkarragoak osatu dituzte, eta letrei dago-

"Taldearen eta kanten
nortasuna zehaztuago
dago disko honetan"

Billabonan joko dute
azaroaren 5ean: bertako
Ikasle Egunean

kienez, gai sozialak eta politikoak uztartzen dituzte.

Gaur hasi eta abendura arte, disko berria aurkezteko hainbat hitzordu dauzkate lotuta: ikasle egunean, Billabonan joko dute, esaterako, azaroaren 5ean. Izan ere, Xarmak sorturikoa da Ikasle Egunerako kanta.

Durangaldean, abenduaren 3an, Mallabiko Herrikoan, eta abenduaren 4an, Durangoko Azokako Ahotsenean joko dute. Intxorta 1937 kultur elkarteak Durangoko azokan kaleratuko duen kanta bildumarako *Ixiltasun hautsia* izeneko kanta ere egin du Xarmak.

Orain aste bitik dauka taldeak www.xarmamusika.com webgunea ere Interneten: ahalik eta jende gehienarengana zabaldu gura dute Ondarroa eta Berrizko musikariak euren lana. Datozen asteetako kontzertuetan ere salgai egongo da diskoa. ■ I.E.

GEURE DURANGALDEA

Jose Julián Bakedano
Zinegilea



Harry D'Abbadie D'Arrast

D'Abbadie familiako semea da, Estatu Batuetan zazpi film ekoitzi dituen Harry D'Abbadie zinema zuzendaria: *Emakumeen zerbitzua*, *Parisko jaun bat*, *Serenata*, *Maitakeria zoragarria*, *Dry Martini*, *Irria* eta *Topace* filmak sortu ditu. Lubitsch-en influentziagaz ekoitziarik filmak dira aipaturiko horiek guztiak; mutuak lau, eta soinuadunak hiru.

Buenos Airesen jaio eta Hollywooden bizi izan zen zinema zuzendaria, eta bere dandy izaeragaz, Eleanor Boardman aktoreagaz ezkondu zen.

Tartean, besteak beste, Lope de Aguirre eta Daguerre agertzen ziren bere familiaren zuhaitz genealogikoa eramaten omen zuen bere jantzetan.

Laguntasun berezia izan zuen Harry D'Abbadiek Chaplinekin, eta haren zuzendari laguntzaile izan zen, gainera, *Urrearen ametsa* pelikulan.

Espainian, Edgar Neville-gaz zeukan laguntasun handia, eta Errepublikara garaitako pelikularik onena osatu zuen: zortizarrez, desagertua dagoen Alarcón-en *Hiru puntako kape-
ra* lanean oinarrituriko *Errotari bihurria*.

1990eko Donostiako Zinemaldian haren lanaren gaineko atzerabegirakoa antolatu zuten, eta José Luis Borau-ren *D'Arrast jauna* liburua kaleratu zuen Euskal Filmetekak.

Euskaldun unibertsal honen figuraren inguruan sakondu gura luketen guztiei gomendatzen diedan liburu zehatza da aipaturikoa.

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

URRIAK 30 18:30ean
DURANGON FOLK
DANTZA IKUSKIZUNA. Sarrera doan.

URRIAK 31 21:30ean
ENVY (Japonia) + YAKUZI + INTERLUDE
KONTZERTUA. Sarrera: 14-17 euro.

AZAROAK 4 22:00etan
KIM SALMON MEETS KILL DEVIL HILL + XABI & PETTI
KONTZERTUA. Sarrera: 12-15 euro.

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300

Azaroak 6 19:00

EN ATTENDANT L'INATTENDU

San Agustin KULTUR GUNEA
DURANGOKO UDALA


Hitz
liburu-denda

artekalea 14,
durango (bizkaia)
info@hitzliburudenda.com
946 810 776

MUSIKA> PLATERUENEAN

Gorka Urbizugaz hasiko da Kantuaren Kantoia

Azaroaren 3an, 20:00etan, Berri Txarrak taldeko Gorka Urbizu izango da **Platerueneko Kantuaren Kantoia** zikloan. Puntako lau euskal musikari izango dira lau eguenetan, berbaldi musikatueta



Durangoko Platerueneko Kantuaren Kantoia berbaldi musikatueta proposamena luzatzen diguten hirugarren aldia da azaro honetakoa. Azaroko lau eguenetan, 20:00etan hasita eta doan izango dira berbaldi musikatueta hitzorduak. Aurreko edizio bietan legez, Jonan Hernandez-kazetari durangarrak gidatuko ditu kantagintza ardatz izango duten saioak.

Berri Txarrak, Ken7, Mursego eta Gose taldeetan jarduten duten musikari eta kantariak dira azaroaren 3, 10, 17 eta 24ko Platerueneko elkarrizketa eta emanaldietako protagonistak. Lau talde horietan ahotza ipintzen duten lau musikari euskaldunekin daukate musikazaleek zita: Gorka Urbizu, Eñaut Elorrieta, Maite Arroita Jauregi eta Ines Osinaga kontzertu jendetsuetan baino giro lasai eta gertukoagoan arituko dira, kantak,

Duela bi urtetik hona, puntako kantariak batzen dira Kantuaren Kantoiko berbaldi musikatueta

erantzunak eta proposaturiko gaiei buruzko gogoetak entzuleekin konpartitzen.

Oholtza gainera euren taldekideek lagunduta eta ehunka entzuleren aurrean jardutera ohituta dauden musikariak, zaleen aurrean, giro gertukoago, etxekoago eta gozoagoan jarduten dira Platerueneko Kantuaren Kantoia zikloan; kantak eta azalpenak tartekatzen dituzte.

Musikarion kantak giro intimoan entzuteko aukera izango da, beraz, azaroko lau eguen iluntzetan, Durangoko Plateruenean: musikariak kanten sorkuntzari eta beste hainbat gairi buruz konpartitu gura dituzten bitxikeriak ezagutzeko.

Orain urte biko udagoienean lehenengo antolatutako zutenetik, Euskal Herrian musikagintzan diharduten puntako musikariak igaro dira Platerueneko eszenatokian atontzen duten oholtzatik; Anari, Mikel Urdangarin, Txuma Murugarren, Petti, Aiora Renteria, Imanol Ubeda, Rafa Rueda eta Xabi Bandini izan dira aurreko urteetan.

Azaroko lau eguen iluntzetan, doan izango dira Platerueneko Kantuaren Kantoiko emanaldiak

Abuztu amaieratik Berri Txarrak taldeak azaro amaieran kaleratuko duen *Haria* diskoa grabatzen diharduen Gorka Urbizu nafarrak zabalduko du, beraz, Platerueneko Kantuaren Kantoian hirugarren edizioa, azaroaren 3an. Hiruko formazio berriak taldeak kaleratuko duen hamabi kantak zazpigarren disko horretaz ere jardungo dute, segururik, Kantuaren Kantoian. ■ I.E.


Azaroaren 10ean
EÑAUT ELORRIETA



Azaroaren 17an
MAITE ARROITAJAUREGI



Azaroaren 24an
INES OSINAGA



DANTZA> EMANALDIA

Kriskitin eta Menorcako dantzariak domekako Durangon Folk jaialdian

Urriaren 30ean, Durangoko Plateruenean, 18:30ean hasita izango da Durangon Folk 2011 jaialdiaren hitzordua



Abuztuaren Durangoko Kriskitin taldeko dantzariak izan ziren Menorcara bidaiatu eta bertan dantza emanaldiak eskaini zituztenak; udazkenean, domeka honetan, Menorcako Ciudadellako taldearen bisita antolatuta dute Plateruenean izango den Durangon Folk jaialdiaren barruan.

Urriaren 30ean, 18:30ean hasita, Menorcako Ciudadellako Grup Folkloric des Born taldeko musikariak eta dantzariak izango dira, Durangoko Kriskitin taldeko dantzariekin, Plateruenean emanaldia eskaintzen. Bigarren aldia da Menorcako taldea Durangora datorrena; orain bederatzi urte ere Durangoko jaialdian parte hartu zuten.

1988an sorturiko taldea da Grup Folkloric des Born, gaur egun 30 musikari eta dan-

tzarik osatzen dutena. Gitarra, bandurri, kriskitinekin eta panderoagaz ipintzen diote emanaldiari musika.

Dozena bat urtean antolatu du Kriskitinek dantzaren eta musikaren bitartez kulturartekotasuna lantzea helburu duen jaialdia; 1999ko abenduan prestatu zuten lehenengo; Galeusca Folk izena ipini zioten orduan. Lehenengo edizio hartan, Galizia, Katalunia eta Euskal Herriko dantzari eta musikariak batu ziren folklore trukearen bitartez elkar ezagutzeko.

Gaur egun 30 musikari eta dantzarik osatzen duten taldea da 1988an sorturiko Born

Durangon Folk izenagaz dihardute Kriskitinekoek azken urteotan Durangon dantza eta musikaren inguruko jaialdiak antolatzen. Domekan, urriaren 30eko arratsaldean da aurtengo hitzordua. ■ I.E.


Urrike
Liburudenda
Kalebarria, z/g - 48200 DURANGO
Tel.: 94 620 18 93 - Fax: 94 681 64 03


plateruen plaza, 12 • 48200 durango
tel.: 94 681 10 06

goizeko 08:00etatik
gaueko 21:00etara
zabalik


clínica dental hortz klinika
b. unamunzaga e. etxebarria
{ odontologia orokorra eta espezialitateak }
muruetaurre 2. blokea C behea - 48200 Durango - 94 681 99 51

Hurrengo eraikuntza


DURANGO


IURRETA

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK
Bixente Kapanaga 19, behea • Tel.: 94 681 66 73
lurreta • www.zarateyelexpe.com

Elorrioren ere aukera onak

“Konponbidean aurrera egiteko berba egin behar da, eta eskuzabalak izan”



Kepa Aginako

2000. urtean Jesus Mari Pedrosa Durangoko Alderdi Popularreko zinegotzia hil zuen ETAk. Mari Carmen Hernández alargunagaz Anboton jarri dugu hitzordua, aro berri honen inguruan duen iritzia ezagutzeko.

Zelan ezagutu zenuen ETak bere jarduna behin betiko uzteko erabakia?

Eguen arratsaldean telefonoz deitu zidaten elkarrizketa baterako, eta komunikatuaren zain zeudela esan zidaten. Ezagutzera ematerakoan, berriz ere deitu zidaten. Horrela jakin nuen albiste.

Zelan hartu zenuen berria?

Pozik hartu nuen. Nire senarra hil aurretik, 1999an su-etena izan zen, eta ondoren, 2000 urtean, hautsi egin zen. Sasoi hartan zeozertara heltzeko esperantza nuen. Su-eten bakoitza hausten joan den esperantza izan da, baina oraingoan ezberdina dela dirudi. Behin betiko izango dela esatean, berba sinestu egiten dut, eta amaitu egin dela esan gura duelakoan nago. Beraz, beste batzuetan baino esperantza handiagoa daukat.

Senarrari gertatutakoa gogora ekarri zizun?

Bai. Sasoi hartan bera ere su-etenagaz ilusionatu zen. Ez zuen bizkartzainik gura. Ez zuen ezer gura. Bera zerrenda batean zegoen, eta errazena zen berak beti ibilbide bera egiten zuelako. Mehatxatua zegoen. Oraingoan pozik nago, egoera horretan zeudenengatik, enpresariengatik eta beste pertsona batzuenengatik ere bai.

Biktima berbagaz identifikatuta sentitzen zara?

Ez naiz biktima moduan identifikatuta sentitzen. Hiltzen den pertsona da biktima; beraz, biktima baten senitartekoa izango nintzateke. Ez zait berba hori gustatzen, eta eurekin egon naizen beste askori ere ez. Talderen batean egon izan naizean, ez dugu beste barbarik topatu, eta gai honen inguruan jardun dugunean komatxoan artean utzi dugu.

Egunotan, biktimen inguruan berba asko egin da han eta hemen.

Erabilia sentitu izan naiz. Orokorrean denok, uste dut. Klase politikoari interesatzen bazaio, biktimak parapeto moduan jartzen ditu aldarrikapenen baterako, eta beste batzuetan baztertu

egiten ditu ez zaielako interesatzen. Euskaldunan biktimen omenaldia antolatututenean, lehenengo aldian ez nintzen joan, omenaldiak orokorrean ez zaizkidalako gustatzen. Bigarrenetan joan nintzenean, Maixabel Lasari esan nion saiatzeko azkena izan zedin. Denok ez gaudela hor deritzot.

Norekin identifikatzen zara orduan?

Sufrimendua sentitzen duen edonorekin. Gertutasuna sentitu dut GALen eta Batallon Vasco Navarroren biktimen senitartekoekin. Terrorismo batek zein besteak sortutako sufrimendua berdina da. Identifikatzen gaituena sufrimendu hori da. Giza eskubideen edozein urraketekin identifikatzen naiz. Giza eskubide guztiak berdin errespetatuak izan beharko lirateke.

“Giza eskubideen edozein urraketagaz identifikatzen naiz. Sufrimendua berdina da”

Elkarbizitza eta adiskidetzearen inguruan zer iritzi duzu?

Garrantzitsua da. Lehenengo pausoa eman dugu, eta bidea luzea izango da, baina berbagaz eta errespetuagaz egingo dugu. Minen bat eragin duena damutzea ontzat emango nuke. Nik neuk hasieratik barkatu nuen, neure burua askatzearen. Ez dut inork barkamena eskatzerik behar.

Oraindik pauso asko eman beharko dira.

Orain berba egin behar da, eta oso eskuzabalak izan. Besteenganako errespetua eta entzuten jakitea ere bai. Jendearen artean pauso txikiak eman daitezke. Gogoz, heldu daiteke horretara.

Zer irudituko litzaizuke presoan hurreratzea?

Sekula ez naiz dispertsioaren aldekoa izan. Gertu egon zitezkeen, eta familiek sufrimendu gutxiago izan.

Elkarrizketaren aldekoa zara?

Politikariekin desilusionatuta egon naiz beti. Eurek interes asko dituzte. Gainera, berba egiten lehenago hasi zitezkeen denak. Zentzugabekeria handia izan da. Sufrimendu handia eragin dute alde guztietan. Estatu demokratiko batean, hobe edo txarragoa izanda ere, dena berbagaz konpontzea da onena. Aldarrikapen horiek beste modu batean egin zitezkeen. Gauzak beste modu batean eraman balituzte... Alde guztietan sufrimendu handia eragin du.

Bateginez GKEan diharduzu.

Nire baitarako asko ematen dit. Jesus Mariri gertatuaren ondoren, ardura bat hartu eta beharra dutenengatik zeozteregiak lagundu egin dit. ■ J. Guenetxea

“Biktima moduan erabilia sentitu naiz. Interesatzen zaienean deitua eta besteetan baztertua”

“Sekula ez naiz dispertsioaren alde egon. Gertu egon zitezkeen eta familiek gutxiago sufritu”

“Aieteko deklarazioan agertzen diren puntuetan dago gatazkaren konponbidea”

Ibon Garateren anaia, Ruben Garate “Anselmo”, orain 11 urte hil zen, kotxe istripuan, Madrilen preso politiko bat bisitatzetik zetorrela. Aurreko gaua gidatzen emana zuen, sasoiz heltzeko. Gaur egun lehengusua du preso.

Zelan jaso zenuen joan zen asteko ETaren komunikatua, armak betiko uztea iragarritz?
Oso berri ona dela uste dut, gatazkaren konponbidean pausu garrantzitsu bat.

Zure anaiari gertatutakoa gogora ekarriko zizun... eta zure lehengusuaren egoera...

Ez dut inongo komunikaturen beharrik, astero-astero etortzen zait burura senide eta lagunak Espainiarantz edo Frantziarantz bisitan doazela ikusten dudanean. Estatu espainolak presoak hurreratuko dituela esaten duen komunikatua heltzen denean etorriko zaizkit lehengusua eta beste preso pila bat gogora.

Zelan bizi duzue dispertsioaren eragina familian eta lagunaren artean?

Dispertsioaren eraginez anaia hilik dago, beraz, argi dago oso gogorra izan dela eragina. Bestalde, bisitak egiteak aparte Mirentxin gidaria ere banaiz; furgonete-tan karteletaraino ahalik eta senide gehien modu seguruago batean eramaten saiatzen gara.

Ikuspuntu ekonomikoa anekdota batekin azalduko dut; urriaren 8an Parisen bisita neukan nire lehengusuarekin eta horretarako tren txartelak denboraz erosi nituen merkeago irten zitezen; 148 euro joan-etorria Gasteiztik. Urriaren 7an lehengusua kartzelaz aldatu zutela jakinarazi ziguten, eta ez zuela bisitarik izango, beraz etxean gelditu nintzen egunez aldatzerik ez neukan tren txartelekin.

Testuinguru berri honetan zer pausu eman beharko lirateke espetxe politikan?

Euren legeak bete ditzatela: dispertsioaren bukaera; gaixotasun sendaezinak dituzten presoak askatzea; hiru laurdenak beteta dituzten presoak askatzea; Frantzian bi herenak beteta dituztenen askatzea; kondena beteta dutenak kalera irtetea; kondenen luzapenerako doktrinaren bukaera.

Eta Euskal Herriari dagokionez?

Uste dut lehengo asteleheneko Aieteko deklarazioan agertzen diren puntuak aurrera eraman beharko liratekeela; hor dago gatazkaren konponbidea.

Zueta zure familia gatazka honen biktimazare-tela sentitzen duzu?

Jakina! Nire anaia ez da DGTren estatistiketako zenbaki bat gehiago, agintari espainolek (lehenengotan PNVren laguntzarekin) diseinatu eta aplikatzen duten espetxe politika basati baten biktima bat baizik. Dispertsioa gatazka honetan estatuak euskal preso politikoen eta

euren senide eta lagunaren kontra aplikatzen duen tresna da, beraz, dispertsioaren biktimak garen heinean, gatazkaren biktimak ere bagara.

Zenbat lagun hil dira presoak bisitatzen?

Nire anaia errepidean hildako zortzigarren laguna izan zen, gaur egun 16 dira hildakoak, eta dispertsioarekin amaitzen ez badute, laster zenbaki hau handitzen joango da. Badakite senideak errepideetan hiltzen ari direla, baina dispertsioa mantentzen dute. Presoen lagun eta senideak astebururo gaude dispertsioak jartzen digun heriotz zozketa honetan parte hartzen. Aurtengo urriraino 11 istripu egon dira.

“Dispertsio politikaren biktima garen heinean gatazkaren biktima ere bagara”

“Ados nago biktimei erreparazioa zor zaiela-eta, ez dago inongo dudarik, baina biktima denei”

Bestalde, esan nahiko nuke inork ez duela zalantzan jartzen ETaren hilketek min izugarria eragin dutela, baina badaude beste hainbeste sufritzen dutenak ere; hor daude GAL, BVE, AAA, Estatuaren errepresioa, torturak eta abar. Ados nago biktimei erreparazioa, errekonozimendua eman behar zaiela, ez dago inongo dudarik, baina biktima guztiei!

Presoen eskubideak aldarrikatzeko herritarren partetik inplikazioa beharrezkoa dela deritzozu?

Funtsezkoa dela deritzot, eta gaur egun sekulan baino gehiago. Horregatik oso ondo ikusten dut, *Egin dezagun bidea* bezalako ekimenak, non eragile eta norbanako ezberdinek presoen eskubideen alde lan egiteko batzen diren.

Zelan ikusten duzu Euskal Herria urte batzuk barru?

Espero dut indarkeria guztiak gaindituta egongo direla, eta herri honi hainbeste sufrimendu ekarri dion gatazka politikoari irtenbidea ematen egongo direla lanean politiko guztiak. Autodeterminazio eskubidearen jabe, euskal gizarteak bozkatuko duen beraien arteko akordioak ekarriko diolako herri honi benetako bakea. Badakit ez dela erraza izango, baina nik ez dut esperantzarik galtzen. Bitartean, joan gaitezen pausoz pauso. ■ J.Derteano



Juanra de la Cruz

“ETaren komunikatua oso berri ona dela uste dut; Gatazkaren konponbidean pausu garrantzitsu bat”



Joseba Azkarraga
Soziologoa

Heldu da azkenean

Heldu da. Beranduegi aukeran, baina heldu da azkenean. Eta pozgarria izateaz gain, badauka paradoxatik asko: espainiar agintari batzuen aurpegietan ez da bizi-pozik igarri; tarteka, irribarre erdi behartuak begitandu jataz. Beharbada, gatazka armatua desagertuta azaleratzen delako gatazka politikoa bere gordinean. Espainiar nazionalismoa eroan da lurralde deserosora, behartuta dago aurrez aurre begiratzera auzi politikoari. Jakin badaki asebate barik dagoela euskal gizartearen gehiengo den sektorearen nahimen politikoa, eta auzi horri bide eman beharko zaiola zelan edo halan.

Euskal abertzaletasuna askoz hobeto kokatu da gauzak termino egokietan planteatzeko: termino politikoetan. Ezker Abertzaleak lurralde potentzialki eman-korrangoan jarri du gatazka. Potentzialki dinot, hemendik aurrerakoak ez dira-eta batere samurrak izango.

Amaitu da euskal historia modernoan garrantzitsuenetakoa izan den fenomeno. Demokraziaren garaipenaz berba egin du hainbatek, eta nabarmena da bermatutago daudela hainbat oinarrizko eskubide. Ostera, beste hainbat batere bermatuta egon barik, gatazkaren humanizazioa oraindik urruti dago. Euskal demokraziaren garaipen osoa oraindik urruti dagoen moduan.

Idoia Agorria - PSE-EE



Albiste handia da, demokraziaren garaipena terrorismoaren totalitarismoaren aurrean. Urte asko behar izan dute konturatzeko indarkeria ez duela gatazka batek ere justifikatzen, eta lortu duten bakarra samina eta sufrimendua izan direla. Terrorismoaren amesgaiztoa amaitu da, eta orain bakea eraikitze prozesua hasiko da. Berradiskidetzeko momentua izango da, bergizarteratzekoa, biktimei aitortza egitekoa... Nik askatasuna berreskuratu dudala ospatzen dut; ETak ostu zidan askatasun hori. Beldurra izateari utzi diot; beldurra, nire familiagatik, nire lagunengatik, eta neugatik.

Dani Maeztu - Aralar

Hainbeste bider aipatutako une historikoa heldu da; aro berri baten atarian gaude. Politikariok maila eman behar dugu, gizarteak exijitzen duen memoriadun bake inklusiboa, galtzaile-rik eta irabazlerik bakoa, lortzeko. Bakoitza bere lubakitik irten behar da; bai gertatutakoaren errelatoa egiteko bai etorkizuna eraikitzeko. Kontakizun amankomuna egin behar dugu elkarbizitza adiskidetu bilatuz. Azkenik, besarkada handi bat gatazkaren ondorioak zuzenean sufritu eta sufitzen jarraitzen dutenei, eta zorionak euskal gizarteari: benetan berak merezi zuen komunikatu hori.



Juan José Gaztañazatorre - PP



ETak indarkeria amaitzen duela esaten duen jakinarazpenagaz poztu egin gara, baina faltan bota ditugu banda terroristaren disoluzioa, armak entregatzea eta bere terrorismoaren biktima izan direnei zor dien aitortza eta parkamena eskatzea.

Alba Gutiérrez - Ezker Batua-Berdeak

ETak behin betiko su etena adierazi du, euskal herritarren biolentzia ezaren eskakizuna kontuan izanda eta ideia politiko eta sentsibilitate-ekin errespetu konpromisoua hartuz. Orain, eragile politiko eta sozialei dagokigu erantzutea, batez ere, Espainiar Estatuko eragile politikoei. Bestalde, bake konferentzian lagundu zuten nazioarteko liderrei eskerrak eman gura dizkiegu, Euskal Herrriko bake prozesuan parte hartzeagaitik. Ezker Batutik bakea eta bizikidetzaren alde lan egingo dugu, orain arte bezala, elkarriketa eta politika direla medio behin betiko bizikidetzat demokratikoa lortzeko.



Jose Luis Navarro - AI




Udalaz kanpoko politika gaiez iritzia ez emateko jarrera mantendu dugun arren, egoera honek salbuespena egitea merezi duela uste dugu. Ez dago zalantzarik; egoera historiko batean gaude, eta Abadiñoko Independentieak harro gaude egoera hau bizitzeaz. Ezin ditugu ahaztu momentu hauek disfrutatu ezin dituzten pertsonak. Bereziki, askatasun barik bizi izan direnak aipatu gura genituzke. Bestalde, espero dugu politikariak elkar ulertzeko bideak aurkitzeko gai izatea, denon artean askatasunez eta demokraziaz lortu dezakeguna lortzeko.

Niko Moreno - Ezker Abertzalea

Erabakiak parez pare zabalitzen dizkio atea gure herriak jasaten duen gatazka politikoa konpontze-ari. Aieteko Adierazpenak finkatu zituen konpontze prozesuaren nondik norakoak; hainbat dei egin eta jendartearen erantzukizuna azpimarratu zen. Dena den, hau ez da ezeren hasiera ezta amaiera ere; hori bai, oso urrats garrantzitsua eta positiboa da. Badakit konpontze horrek Euskal Herriko independentziara eraman gaitzakeela eta horregatik badirela bake egoera baten aurrean deseroso sentitzen direnak, baina denoi dagokigu norabide honetan, norabide onean, aurrera egitea.



Mikel Etxebarria - ELA



Erabakia berebiziko albiste ona da. Gizarteak urte askoan adierazi izan duen borondateagaz bat dator, eta ilegalizatutako Ezker Abertzaleak azken aldion egindako hausnarketari dagokio. Espainiako eta Frantziako gobernuak soilik gatazkaren ondorioez aritzeko elkarriketei ekin behar diete. Urrats esanguratsuak egin behar dira giza-eskubideei dagokienez, eta Espainiar Estatuko gabezia demokratiko larriak konpondu behar dira. ELAK itxaroten du ezin premia handiagoko arazo sozialak, eztabaida politiko eta sozialean merezi duten garrantzizko tokian kokatuko direla.

Eulate Zilonizaurrekoetxea - LAB

ETak Euskal Herrian eta bi estatuetan garai berri bat irekitzen duen urrats historikoa eman du. Konpromiso argi eta irmoa bereganatu du gatazka politiko eta armatua gainditzeko ekarri behar duen prozesu demokratikoarekin. Euskal langile guztiei dei egiten diegu prozesu horretan parte hartu dezaten, esku artean dugulako hainbeste borrokatu, eskatu eta desiatu dugun bake justu eta demokratikoa eraikitzeko aukera historikoa. Euskal herritarren indarra, konpromisoak bereganatzeko eta antolatzeko prestutasuna eta borroka egiteko gaitasuna izango dira aurrera egitea ekarriko dutenak.



Unzalu Salterain - EHNE




EHNE-Bizkaia uste du jarduera armatua behin betiko uzteko ETaren erabakia positiboa dela. Euskal Herriak bizi duen gatazkaren konponbidean aurrerapauso handia suposatzen du. Gatazkaren konponbidean aro berri bat zabaldu da, eta aurrerantzean pausoak ematen jarraitu beharra dagoela uste du sindikatuak, eskubide zibil eta politiko guztiak bermatzeko bidean. Zentzu horretan, Aieteko adierazpenak adierazitako bidean aurrera egin eta horretan laguntzeko deia egiten die EHNE-Bizkaia eragile politiko, sindikal eta sozial guztiei.

Roberto Martin - CCOO

Albiste bikaina da. Alderdi politikoei eta instituzioei dei egin gura diegu normalizazioaren, partaidetza politikoaren eta gizartearen zubiak eraikitzearen alde lan egin dezaten. Era berean, gaur beharrezkoa da biolentziaren biktimei aipamen berezi bat egitea, eraildako pertsonen eta euren familiei, bereziki CCOO sindikatura afiliatuta zeudenei. Indar politiko guztien parte-hartzea baldintza berdinetan normalizatzu lan egiteko unea dela uste dugu, Ezker Abertzalearen legalizazioa ahalbidetuz.



Mauricio Garcia - UGT



UGT-Durangok pozik hartu du ETaren komunikatua, denbora luzez itxarondako erabakia delako. 50 urte baino gehiagoan izandako eraso, mehatxu, estortsio eta heriotzari amaiera emango dio. Demokraziaren garaipen argia da, ETak hartutako bidea egokia ez zela ulertzen gehiegi iraun duen zentzugabekeriaren aurrean. Gaur, inoiz baino gehiago, terrorismoaren biktimei errespetua adierazi gura diegu. Etorkizunari baikortasunez begiratzen diegu. Euskadiko gizartearen pluraltasuna, justizia eta berdintasuna egongo direla uste dugu, eta indarkeria jarrerak ez dute lekurik izango.

Javier Meruelo - CNT

CNTn irakurketa bat baino gehiago daude. Bakuninek, anarkismoaren aitak, beti hartu zuen kontuan nazio arazoa. 1886an, I. Internazionalaren kongresuan hau aldarrikatu zuen: “Herri batek Estatu baten partaidea izateagatik,[...] ez da ondorioztatzen Estatu horri betiko lotuta egon behar duenik”. Euskaldunoi hitza eta erabakia eman behar digute egoera antidemokratiko honekin bukatzeko. Baina demokrazia ez da lortzen soilik bandera bati koloreak ipiniz edo euskara normalizatuz, gizarteak bere eguneroko arazoetan era zuzenean erabakiz baizik.



Jasone Agirre
Kazetaria

Ipar Abasolo - ‘Egin dezagun bidea’ ekimena



Urriaren 20koa pauso historikoa izan zen. Hala ere, ez dut uste ezeren amaiera denik; aldez, konponbidearen hasiera baino ez dela deritzot. Euskal Herriarekiko salbuespen neurriak ezartzen dira oraindik, eta horiek gainditzeko urgentea da: dispartzioagaz amaitu behar da; Alderdien Legea eta Audientzia Nazionala desagertu behar dira... Guztioi dagokigu konponbiderako eta elkarbizitzarako urratsak ematea. Une honetan, ordea, Madrilék eta Parisek ETaren ekimenari erantzun behar diotela uste dut.

Aitor Aurrekoetxea - EHUko irakaslea

Gatazka armatua bukatzea gauza ederra da denontzat, baina gustatuko litzaidake egon diren beste 449 biktima horietaz ere akordatzeta eta apaltasun osoz proposatzea ETak sortutako 850 bitimek gehitzea, ondorioez berba egitean. Gauzak izan diren moduan dimentsionatzeko, zenbatu dezagun sufrikario guztia behar dena; 1.200 gizabanakok galdu dute bizia gatazka laggarri honetan. Aurrerantzean iruditzen zait presoan askatasuna, biktima guztien aitortzagaz batera, egon beharko litzatekeela agendaren lehenengo tokian. Time to peace, time to EH.



Endika Blanco - Ikaslea



Pozik nago, baina ez zoriontsu. Zoriontsua izango naiz ETaren erabaki honek alderdi politiko guztien arteko elkarriketa sustatzen baldin badu. Zoriontsua izango naiz erabaki honen ostean gure herriari erabakitze eskubidea aitortzen badiote. Zoriontsua izango naiz, Durangotik Abadiñora bidean Montorreta kalean dauden horiek behingoz alde egiten dutenean. Eta zoriontsua izango naiz, kartzeletan usteltzera kondenatuta dituzten presoak gure artean ikusten ditudanean. Ez dut uste hau demokraziaren garaipen bat denik, oraindik urruti dagoen demokraziara heltzeko pauso bat baino.

Julen Orbegozo - Kazetaria

Albistea iritsi da. 2011ko udazkenean, urriaren 20an, iluntzeko freskuran, iritsi da. ETaren bakea, bakearen parte bat da, hori guztia eta hori besterik ez. Bakea gizarteak egin behar du gizarte; zuk, nik, guk, gure artean. Herriak herriari eman behar dio bakea, elkarbizitza. Eta elkarbizitza da alde bateko eta besteko eskubide guztiak errespetatzea; Euskal Herriari erabakitze eskubidea ematea; sufritu dutenak errekonozitzea; sufitzen darraiten presoekin elkarriketarako hastea, euren egoera konpontzea. Espainiako trantsizioa bukatu da, Euskal trantsizioari hasiera emanez.



Aitziber Irigoras - EAJ

ETak bere eginkizun armatuaren behin betiko amaiera iragarri du. Albiste bikaina da. Amaitu da amesgaiztoa. Une honetan derrigorrez hartu behar ditugu gogoan urteotan intolerantzia bortitzaren tributu ankerra ordaindu dutenak. Gure oroimenak mendeku goserik gabeko Euskadi berria loratuko du. Bake iraunkorrerako bidea zabaldu behar da orain. EAJk eskua luzatu nahi dio Ezker Abertzaleari, talde politiko eta sozial guztiekin batera, elkarrekin egin dezagun adiskidetze eta elkartasun bide hori. Amaitu da ETaren, Euskadi ta Askatasunaren aldia. Orain hasiko da Askatasuna ta Euskadiren aldia.

Urdaspal Bolinaga - Bildu



Itxaropen garaia bizi du Euskal Herriak, horrela bizi du egunotan euskal jendarteak. Bilduk ere bere egiten du sentimendu hori. Ezinbestekoa ikusten dugu ‘Aieteko Deklarazioa’ deitu denaren beste lau puntuak berehala martxan jartzea, guztion artean. Bada garaia eszenatoki politiko berri honi, gogoz lan eginez, duen garrantzia emateko, eztabaida politikoan sakon eragiteko eta gure herriak bere etorkizuna askatasunez erabaki ahal izan dezan bideratuko duen sare sozial zein politikoa sortzeko, gatazkaren konponbiderako prozesu integral baten baitan.

IRITZIA >

gutunak@anboto.org

Bideokameraz grabatzeagatik udalbatza bertan behera, eta hurrengo atea itxita

Alkateak bere boterea muturrera eramanez, osoko batzarrak bertan behera uztea erabaki du herritar batek bertan eztabaidatuko diren gaiak kameraz grabatzeari uko egin ez diolako. Horregatik, asteazken honetan egitekoa zen udalbatza atea itxita egingo duela agindu du.

Gai hau ez da kontu berria, udalbatza berria martxan jarri zenetik mahai gainean egon den eztabaida da hau, eta orain arte gertatutakoak era honetan laburtu daitezke:

1. Ekainean herritar honek udalbatza grabatu eta edukia hedatzeko asmoa zuela adierazi zuen. Plenoa bukatuta, Bilduko bozeramaile den Aitor Azuetari herritarrek kamera erabili orduko udal taldeen artean gai honen gainean eztabaidatzeko proposamena helarazi zion alkateak.

2. Uztaileko osoko bilkura kameraren presentziarik gabe burutu zen. Bertan, Bilduk, denbora nahikoa igaro arren, kameraren gaia eztabaidatu gabe zegoela ohartarazi eta eztabaidatzeko proposamena zuzendu zuen. Navarrok "aztertuko den eskaria dela" adierazi zuen.

3. Iraileko plenoan herritar bera kameraz agertu zen udalak gaia aztertzeko denbora nahikoa eta soberan izan duela argudiatuz. Alkateak oraindik ere aztertzeko dagoela esan zuen eta grabatzen zuen azken aldia izango zela mehatxatu egin zion.

4. Urriko bilkuran, gaia oraindik aztertu gabe egonik, kameraren presentziak ohartzean, Navarrok udalbatza bertan behera uztea erabaki du.

Lehenik eta behin, Bildu Abadiñotik esan beharra dugu lau hilabete ondoren oraindik ere gaia aztertu barik egoteak Abadiñoko Independenteen borondate falta argia adierazten duela. Gainera, oso larria deritzogu Navarrok batzarren gehiengoak ez duela plenoak grabatzerik nahi esateari, izan ere, orain arte ez dugu batzorde batean ere gaiaz jardun, eta PNVko zinegotziek adierazi diguten bezala, haiekin ere ez dute honetaz hitz egin. Bilduko zinegotziok udalbatzak kameraz grabatzea udaletxea herritarrei zabaltzeko aukera bezala ikusten dugu, eta honetaz gain honako abantaila hauek ikusten dizkiogu:

- Herritarrek osoko bilkuran eztabaidatutakoa eta erabakitakoa ikusteko aukera izango dute
- Jasotako informazioak plenoan esandakoak zehatz-mehatz jasoko ditu (aktetan ez da dena jasotzen)

- Orain arteko datuak azterturik (iraileko plenoko bideoak 250 begirale izan zituen), herritar gehiagorengana iristeko baliagarria da

- Herritar askori erosoago suerta dakioke osoko bilkura bidez ikustea irakurtzea baino.

Horregatik, Bilduk bere egin eta defendatu egiten ditu herritar honen argudioak, eta alkateak izan duen jarrera totalitarioa erabat arbuiatzen du. Herritarrek udalean gertatzen denaren berri jakiteko beldur izateak ez du inolaz ere horrelako jokabiderik justifikatzen.

Bilduren apustua demokrazia parte-hartzailea sustatzea den bitartean, Abadiñoko Independenteen jarrera beste muturrean dago, udal itxi bat kudeatzen dabiltzalarik, eta hori da erakusten duena datorren udalbatza atea itxita egiteak. Lotsagarria!

Herritar honek zuzendutako bideoak bildu.info/abadino web gunean dituzue ikusgai.

Aitor Azueta, Saioa Zuazubizkar, Hibai Urrutia, Irakusne Gorospe eta Maria Luisa Larringan (Bilduko Abadiñoko zinegotziak)

Klik batean @



Eleizalde ondoko aparkalekua

Eleizalde futbol zelaiko aparkaleku ingurua udal materialez beteta dagoela salatzeak argazki haxe bidali digu elorriar batek. Oraintsu materiala ordenatu egin dute, eta ingurua txukunago dago. Hala ere, eskertuko luke hango material guztia beste norabait eramatea, ez deritzolako hura horretarako tokia denik.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, 48215 Iurreta - astekaria@anboto.org
Izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta NAN
zenbakiagaz batera bialdu behar dira.

Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideak jarraituz zuzenduta publikatuko dira.
DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO

Sei hankako mahaia



Urdaspal Bolinaga
Bildu

Bidean goaz

Aurreko ostegunean albiste historikoa jasogenuen, E.T.A. erakunde armatuak armak "behin betirako" uzteko erabakia iragarri zuen. Geroztik ez daukat besterik buruan, eta uste dut herritarren gehiengoaren kasua dela hau, eta, nola ez da izango!, bizi dugun itxaropen garai hauetan beste aurrerapauso bat dela sentitzen dugunean; norabide egokian eginiko alde bakarrekopausoa.

Denok ditugu memorian egun oso gogorak, gatazka politiko honek sortutakoak, herri honetako etxe bakoitzak bere erarasufritu dituenak, orain aipatu ere egin nahi ez ditudanak; honek ez duela nahi azaltze egin ditudanik. Denok pairatzen ditugu gatazkaren eraginak gehiagoodo gutxiago, berdin dit bakoitzen ideologiak, eta gatazka politikoari konponbide integral bat eman arte denok gara gatazka honen biktimak. Eta, alde batzuetatik, erakundearen etenaz gatazka konpondu dela esaten aritu badira ere –alderdi politiko batzuk, telekomunikabideak etab.– Herritar asko gara herri honek duen historiagatik, hizkuntzagatik, ohiturengatik, bere izaeragatik eta nazio kontzientzia dugulako erabakitze eskubidea daukagula sentitzen dugunak, eta berau burutzean nahi dugunak, eskubidea guztiz zilegi delarik.

Gatazka honi benetako irtenbidea emateko, ordea, ezinbestekoa da herritarren lana, esan bezala, konponbide integral hori bultzatu behar dugunok herritarrek gara. Prozesu guztia kapitalizatu eta bultzatu behar dugu, eta pozgarria da herria horretan badabilela ikustea; pasa den larunbatean Bilbon gertatu zen bezala.

Orain gure txanda da, zuen txanda da, herritarrok gobernariari helarazi behar diegu ez dugula nahi egun beltz gehiago, eta exijitu egin behar diegu herri honek merezi duen irtenbidea izateko lan egin dezatela. Eta irtenbidea ez da helduko herri honek modu libre batean bere izaera erabakitzen duen arte, espainiarrak edo frantsesak izan nahi dugu ala euskaldunak izan nahi dugu?



anboto
durangaldeko astekaria

Anboto komunikabideak Elkarte
2011ko urriaren 28a - 10. urtea - 434 zk.

Laguntzailea:



Eta honako udal guztiak:



Zuzendaria:

Jone Guenetxea.

Erredakzio burua:

Joseba Derteano.

Administrazio burua:

Itziar Belar.

Administrazioa: Miren Abasolo.

Publizitatea: Goretti Alonso,

Maia Huarte.

Erredakzioa: Aitziber Basauri,

Itsaso Esteban, Markel Onandia,

Maia Ugalde.

Maketazioa: Ainhoa Arizmendiarieta.

Testu zuzentzailea: Igor Elortza.

Argazkilariak: Kepa Aginako eta Juanra de la Cruz.

KIROLAK >

Kulturaleko gazteek badute maila

Agirregomezkortak gazteen taldera jo beharko du lesioek hezurretan utzi duten taldea osatzeko: "Lasaitasuna ematen du maila ona eskainiko duten gazteak badaudela jakiteak"



Orain arte bost partida irabazi, hiru galdu eta bi berdindu ditu Durangoko Kulturak. Kepa Aginako

Durangoko Kulturak Eibar hartuko du bihar etxean, eta Mikel Agirregomez-korta entrenatzaileak lehenengo taldeko 14 jokalarik bakarrik dauzka jokatzeko moduan. Lesioek gogor astindu dute taldea liga hasiera honetan. Gainera, askotariko lesioei, txartelen ondorioz baja direnak gehitu behar zaizkio. Ondorioz, gazteen taldeko jokalariekin osatuko du taldea Kulturaleko entrenatzaileak.

Lesioen arazoak ia-ia endemikoa dirudien arren, Agirregomez-kortak alderdi positiboa aur-

kitu dio egoerari: "Aurten gazte-ei deitu behar izan diegu behin baino gehiagotan, eta ondo erantzun dute. Entrenatzaile bati lasaitasuna ematen dio edozein unetan maila emango duten gazteak badaudela jakiteak". Esaterako, joan zen asteburuan Beñat Arruabarrena deialdian sartu zuen, eta oraingoan ere gazteen taldekoek lehenengo taldeko kide izateko aukera izango dute.

Orain arteko hamar jardunaldietatik bost irabazi ditu Durangoko Kulturak, eta

"gutxigorabehera itxaron zitekeen tokian" dago, zazpigarren, play off postutik bost puntura. Dena dela, orain arteko uzta oparoagoa izan zitekeen etxetik kanpora zuhurrago ibili balira. Kanpoan jokaturako bost parti-

Bost partidatatik lau hamarregaz amaitu dituzte kanpoan

datatik lau hamar jokalarigaz amaitu dituzte, eta eragozpenik gehienak lehenengo zatian etorri dira; larrutik ordaindu dute: Kulturak jaso dituen 14 goletatik 10 jokalarik bat gutxiagoz zeudela jaso dituzte. "Zerbaitegatik gertatu da, eta aztertu egin beharko dugu berriro horrelakorik gertatu ez dadin".

Dena dela, oro har, Agirregomez-korta gustura dago taldea ematen dabilenagaz: "Konpromisoa ikusten dut. Taldea lanerako dago eta oso gustura nago denekin". ■ J. Derteano.

Liderraren kontra lortu du lehen garaipena Tabirakok

80-70 menderatu zuten Biok Zerbitzuak; oro har, lehen hiru sailkatuek galdu egin zuten

Ligako laugarren jardunaldian heldu da Tabirako Baqué gizonetako talde nagusiaren lehenengo garaipena. Oro har, jardunaldi kuriosoa izan zen azkena,

sailkapeneko lehenengo hiru sailkatuek, ordura arte hirutik hiru irabazita zeuzkaten taldeek, galdu egin zutelako. Tabirako Baquék bigarren sailkatua menderatu bazuen, La Sallek San Ignacio hirugarren sailkatuari irabazi zion eta Padurak Autocares Artieda liderrari.

Bitartean emakumeek Atletico San Sebastian bisitatuko dute bihar. Talde biak galdu barik daude oraindino. ■ J.D.

Emakumeek galdu bakoien lehia jokatu dute Donostian

Alacanteko lasterketan urtea biribildu dezake Fradesek

Distantzia Luzeko Ranking Nazionala irabazi dezake Gurutze Fradesek azaroaren 6an

Triatloian Distantzia Luzeko Ranking Nazionala irabazteko aukera handiak ditu Gurutze Frades Mugarra triatloi taldeko atletak. Asteburuan Ibizan lehia-tu behar zen azkeneko proban Raquel Lombo baino bost postu atzerago sartzea nahikoa zuen txapela janzteko. Baina Ibizako triatloia bertan behera utzi dute diru faltagatik, eta ordezkio lasterketa Alacanteko Orihuela herrian antolatu dute, azaroaren

6an. Bitartean, badu zer ospatua, Bilbao Night Marathon-en emakumeen maratoni erdia irabazi zuen-eta joan zen asteburuan. Leire Muniain durangarra ere podiumera igo zen hirugarren postuan.

Maratoi osoan, berriz, Oihana Garcia iurretarra hamargarren sailkatu zen. Gizona dago-kienez, maratoni erdian Roberto Corujo iurretarra 20. postuan helmugaratu zen. ■ J.D.

Final-laurdenetan egoteko txartelak jokoan izango dira Olazarren

Zaldibarko Olazar txapelketa apurka-apurka aurrera doa eta azaroaren 3ko egunean, 21:30ean, final laurdenetarako txartelak jokoan izango dituzte lau t'erdian zein binaka.

Kaiolan Legorburu galda-koztarrak Oronoz nafarra izango du aurrean. Binaka bizkaitarren arteko lehia dute Arrese igorretarrak eta Kastillo markinarrak Beitia usansoloarren eta Iruña munitibartarren kontra. Dagoeneko final laurdenetan daude Urretabizkaia lau t'erdian eta Beitia-Iruña binaka. Atzo beste lehia bi jokatu ziren (emaitzak www.anboto.org). ■ J.D.

Azken postuetan daude DRTko talde biak

Durango Ilarduyak eskas ekin dio denboraldiari. Gizonetan, nagusien talde biak azkeneko daude sailkapenean. Ohorezko B mailan, durangarrek puntu bakarra dute, eta joan zen asteburuan 77-0 galdu zuten Oviedora egindako bisitan. Euskadiko ligan jokatzeko duen Durango Ilarduyaren bigarren taldea okerrago dabil, orain arte ezin izan duelako puntu bakar bat ere lortu.

Euskadiko mailan dotore dabilena Elorrio R.T. Parra Taberna da. Sailkapenean bigarren daude, Universidad Bilbao liderrarengandik lau puntura, eta Hernanigaz berdinduta. ■ J.D.

Lehen garaipena ospatzeko sei gol Elorriok

Futboleko Elorrioko emakumeek denboraldiko lehenengo garaipena lortu zuten laugarren jardunaldian. 1-6 jipoitu zuten azken sailkatua Berangon, eta arnasa apur bat hartu dute 10. postura igota. Biher Ugeraga azken aurrekoak bisitatuko du Elorrioko Eleizalde futbol zelaia.

Iurretako azken hirugarren dago maila berean. Arratia liderrari egindako bisitan, 1-0 galdu zuten. Arratiak orain arteko lehia guztiak irabazi dituela eta golik jaso barik dagoela kontuan hartuta emaitza duina da, baina puntuak behar dituzte zultik irteteko. ■ J.D.

Durangaldeko maratoi erdia, etzi, Urkiolako Santutegitik abiatuta

Urtero lege, ibilbide bi prestatu dituzte Bidezabalgo kideek, 21 eta 11 kilometrokoak



Mendibide gorabeheratsuei aurre egin behar izaten diete maratoi erdiko parte-hartzaileek. Bidezabal

Gozatzeko eta sufritzeko aukera eskaintzen du urtero Durangaldeko Mendi Maratoi Erdiak. Lasterketan zehar katzan diren 21 kilometroak gozamen dira natura gustuko duen edonorentzat; baina, era berean, mendibide irregular eta gorabeheratsuak astunak suertatu daitezke azkenerako. Dena dela, parte-hartzaile kopuru handia batzen du urtero lasterketa honek, sufri-mendu eta guzti ere erronka gus-tagarria den seinale.

Ibilbideak 502 metroko desnibel pilatua du goraka, eta 496 metrokoa beheraka. 21 kilometroko ibilbidea gehiegixto iruditzen zaionarentzat 11 kilo-

laz Water Becerrak eta Ana Condek irabazi zuten 21 kilometroko lasterketa

metroko beste bat ere aurreiku-si dute Bidezabal atletismo taldeko antolatzaileek. Azken lasterketa laburrago hori domekan 10:00etan hasiko da, Urkiolako Santutegiaren parean; maratoi erdiari 10:15ean ekingo diote.

Lasterketa irabazten duenak 200 euroko saria jasoko du,

gizonetan zein emakumeetan. Bigarrenek 150 euro irabaziko dituzte, eta hirugarrenek 75 euro. Maila hauetan zein adinaren arabera banatutakoetan garaikurrak ere banatuko dituzte. Horrez gainera, antolatzaileek jakinarazi dutenez, bestelako sariak ere zozkatuko dira parte-hartzaileen artean.

laz Walter Becerra sestao-rrak irabazi zuen gizonetan (1.16.32) eta Ana Conde gas-teiztarrek emakumeetan (1.31.10). Gizonetan Aitor Uri-besalgo eta David Garcia duran-garrek osatu zuten podiuma. Emakumeetan Iraia Garcia zor-notzarra bigarren izan zen. ■ J.D.

DATUAK

Eguna:
Urriak 30, domeka
Irteera ordua:
11 kilometrokoa: 10:00
Maratoi erdia: 10:15

Antolatzailea:
Bidezabal atletismo taldea

Sariak:
Irabazlea: 200 euro
Bigarrena: 150 euro
Hirugarrena: 75 euro

2010eko irabazleak:
Walter Becerra: 1.16.32
Ana Conde: 1.31.10

Sisi-sagak eskoletara hurreratuko du bizikleta

Bizkaiko federazioagaz elkarlanean hainbat ikastetxe bisitatuko dituzte datozen hileetan

Durangaldeko Sigi-saga bizikletazaleen elkarteak, Bizkaiko Txirrindularitza Federazioagaz elkarlanean, gaztetxoei bizikleta hurreratzeko ekimena abiatuko

Bide-segurtasunari zein mekanikako nozioei buruz jardungo dute

du datozen egunetan. Eskola kirolaren barruan, Bizkaiko eskualdeetako hainbat ikastetxe bisitatuko dituzte 2012ko apirila bitartean, bizikletaren kultura eta txirrindularitza gaztetxo-

gan txertatu guran. Jardunaldi horietan bizikleta zelan erabili eta bizikletako mekanikari buruzko nozioak (zelan desmuntatzen den gupil bat, zelan konpontzen den zulatu bat...) erakutsiko dituzte. Horrez gainera, gizarte ikuspegia ere eman gura diete jardunaldiei, eta, bide horretatik, bide-segurtasunari eta herri barruko txirrindularitzari buruz ere jardungo dute.

Jakinarazi dutenez, datozen egunetan hasiko dira ekimenagaz eta tituludun monitore bik gauzatuko dute. Batez ere, 2000.ean eta 2001.ean jaiotako gaztetxoei zuzenduta daude jardunaldiak. ■ J.D.

Mallabia itzartu da, Sasikoa eta Elorrio ez

Mallabia zulotik irten da garaipen bi lortuta; azkena, Bilbo indartsuaren kantxan lortu du

Mallabia Hierros Servando gero eta hobeto dabil areto futboleko hirugarren mailan. Liga porrot batez hasi zuten; ondorengo jardunaldi biak berdindu egin zituzten, eta azkenean bietan irabazi egin dute.

Gainera, joan zen asteburuan ordura arte lider zen Tecu-ni Bilbo menderatu zuten kanpoan. Atsedenaldira 3-1 gal-tzen joan ziren, eta epaileekin haserre. Bigarren zatia hasi aurretik autokritika egin, epaileak bakean utzi behar direla kontzientziatu eta partidari kon-tzentratuz, emaitzari buelta ematea lortu zuten (5-7). Orain sailkapenaren goialdean daude.

Sasikoak eta Elorrioko Buskantzak, aldiz, zuloan jarraitzen dute. Durangoko taldeak 4-2 galdu zuen Santurtzin, eta hiru puntugaz azken hirugarren daude sailkapenean. Larriagoa da Elorriokoren egoera, orain arteko bost partidak galdu egin dituztelako.

Abadiño goi mailan

Azpimarragarria da Abadiño-ko taldearen jarduna ere. Abadiño-ko Lagunek zein Abadiño-ko Gaztetxiek orain arteko partida guztiak irabazi dituzte, eta lider-tzan (edo liderrekin berdinduta) daude goren mailan eta lehe-nengo erregionalean. ■ J.D.

Agenda

FUTBOLA

HIRUGARREN MAILA

Durangoko Kulturala - Elbar

Zapatuan, 17:00etan, Tabira GOREN MAILA

Berriz - Moraza

Zapatuan, 17:30ean, Berrizburun

Zaldia - Galea

Zapatuan, 17:00etan, Solobarrian

HIRUGARREN ERREGIONALA

Ezkurdi - Moraza B

Zapatuan, 17:00etan, Arripausetan

Iurretako B - Zaldia B

Zapatuan, 16:00etan, Larrakozelain

Berriz B - Txurdinaga

Domekan, 11:30ean, Berrizburun

Elorrio B - San Ignacio B

Zapatuan, 18:00etan, Eleizalden

LEHENENGO ERREGIONALA (emakumeak)

Iurretako -

Berriz-Otxoa B

Zapatuan, 18:00etan, Larrakozelain

Elorrio - Ugeraga

Zapatuan, 16:00etan, Eleizalden

ARETO FUTBOLA

HIRUGARREN MAILA

Sasikoa Durango - Sestao

Zapatuan, 18:30ean, Landako kiroldagian

Mallabia Hierros Serv - Ibarra

Domekan, 17:30ean, Zaldibarko kiroldagian

EUSKAL LIGA

Kurutziaga ikastola - Arabako EHU

Domekan, 12:00etan, Landako kiroldagian

GOREN MAILA

Abadiño Lagun - Astraburuko

Domekan, 11:15ean, Berrizburun

Presion Break - Mazusberri

Zapatuan, 17:15ean, Berrizburun

LEHENENGO ERREGIONALA

Elorrioko B - Zamudio

Zapatuan, 18:00etan, Elorrioko udal kiroldagian

Sapuberri - Soloarte B

Zapatuan, 17:00etan, Landako kiroldagian

SASKIBALOA

LEHENENGO MAILA

Tabirako Baqué - Askartza

Zapatuan, 17:00etan, Landako kiroldagian

PILOTA

OLAZAR TXAPELKETA

Lau t'erdian:

- Oronoz (Nafarroa) / Legorburu (Galdakao)

Binaka:

- Arrese (Igorre) - Kastillo (Markina) / Beltia (Usansolo) - Irusta (Munitibar)

Azaroak 3, eguna, 21:30ean, Zaldibarko pilotalekuan

AMALURRA[>]



Durangoko Merinaldearen
Amankomunazgoa
Mancomunidad
de la Merindad de Durango



Erlojuagaz zorabiatuta, benetan aurrezten ote da energia?

Datu batzuek energia kontsumoa % 3 eta % 5 artean aurrezten dela diote; beste batzuek % 0 eta % 0,5 artean

Ordu aldaketak energia aurrezteko bide serioetatik arreta galtzea dakar, Ekologistak Martxan-en ustez

Zapatu gauean, ordu bat gutxiagoko loa. Ordu aldaketa garaian aldeko eta kontrako iritziak agertzen dira komunikabideetan

Gauetz kandela gutxiago kontsumitzeko, udan erlojuak ordu-bete aurreratzea proposatu zuen Benjamin Franklin zientzialari estatubatuarrek XVIII.mendearen. Ideia ez zuten aintzat hartu, baina bi mende geroago, 1973ko petrolio-krisiaren ondoren, udan ordua aldatzea erabaki zuten hainbat herrialdetan.

"Zapatu gauean, lo egiteko ordu bete gutxiago!". Energia aurrezteko aldatu genuen martxo amaieran ordua. Unesa industria elektrikoaren patronaren arabera, martxotik urrira bitartean, etxe baitotzean, % 5 aurrezten da energia, eta merkatal guneetan % 3.

Datu guztiek ez diote gauza bera, baina: Energiaren Dibertsifikazio eta Aurrezteko Institutuaren (IDAE) arabera, Espainian energia kontsumoa % 0

eta % 0,5 artean baino ez da aurrezten.

Aldekoak eta kontrakoak

Udaberrian eguzkiaren argia eta energia gehiago aprobetxatzeko aurreratu genituen erlojuak, eta negua heltzen denean adituek diote ez dela komeni udako ordutegia mantentzea, argi barik ordu gehiagotan lan egingo litzatekeelako. Horrek energia gastua igoko luke. Hori ez da guztiz argia, baina, ordutegien errutina mantenduta, goizez aurreztutako energia iluntzean gastatzen delako.

Hainbat ekologista talde ordu aldaketaren kontra daude. Ekologistak Martxan elkarteak, esaterako, energia eta dirua ez direla aurrezten azaldu du. Espainiako Sare Elektrikoak (REE) erakundearen datuak


hartuta, ordu aldaketa egin aurreko eta ondorengo hamar egunetako kontsumoa konparatu dituzte. Azken hiru urteetan egin ditugun sei ordu aldaketetatik bitan txikitu da kontsumoa; beste laueta handitu egin da.

Ekologistak Martxan iritzi, ordu aldaketak, energia eta dirua ez aurrezteaz gainera, "aurrezteko bide serioetan arreta galtzea dakar: ordu aldaketa ohitura moduan mantentzen da, eta gobernatzaileak eta gobernatuak energia aurrezteaz arduratzen direla sinbolizatzen du; horren proba legez, bizitzako erritmoa aldatzeko prest agertzen dira". Ekologisten berbetan, "organismoaren eta erloju biologikoaren erritmoa jarraitu eta energia xahuketa gelditzeko neurri serioen alde jokatu beharko litzateke".

5 urte, 50 ikerketa, 840 orri

5. alea kalean!

www.gerediaga.com



-k “abentura polita eta interesgarria” hasten zuela aitortzen zuen 2007an Astola aldizkariaren lehenengo zenbakia argitaratu zuenean. Eskualdea aztergai hartuta, arlo diferenteetan egin diren ikerketak plazaratzea edota berriak sustatzea jarri zuen helburutzat. Urtero-urtero 10 bat lan jasotzen dituen aldizkaria argitaratu dute. Bosgarrena ere prest dago.

Bost urte bete ditu Astola aldizkariak. Urtekaria izanik, bosgarren zenbakia kalean dago eta, orain arte egingdakoari erreparatuz, 50 ikerketa eta 840 orri plazaratu dira. Durangaldeko historia ertz askotatik ezagutzeko modua eman du aldizkariak. Baina etorkizunera begiratu eta hausnarketarako bidea ere eman du. Eskualdeko ikerlari, idazle eta zientzilarien plaza ere bihurtu da.


Astola aldizkariaren bosgarren zenbakia Durangaldeko liburudenda nagusietan azaroaren erdialdean izango da salgai. Bost euroko salneurria izango du beste urtebetez, eta Gerediaga elkarteak Durangoko Azokan izango duen gune berezian ere salduko da.

Guztira, 10 ikerketa eta 175 orri ditu Astolaren azken zenbakiak. Goi-Paleolitoko garaietatik hasi eta 2027. urteko Durangaldea zelangoa izan daitekeen irudikatzen dugun bitartean, Arria erreka, Durangoko emakumeen kartzela, trenbideak, Elorrioko petrolioia eta bolbora usaina, Atxondoko udalerria, zuzenbide zibila eta zalantzan dagoen ondare arkitektonikoa ezagutzeko bidea uzten digu.

ASKONDOKO ZALDIAK

EGILEA: DIEGO GARATE ETA JOSEBA RIOS

Urkuleta auzoko Askondo kobazuloan Goi Paleolitiko garaiko margoak aurkitu dituzten arkeologoek aurkikuntzaren garrantzia azaltzen dute. Koba barruko irudiak ere jasotzeko aukera izan du Gerediga elkarteak.



DURANGOKO EMAKUMEEN KARTZELA

EGILEA: MARIA GONZALEZ GOROSARRI

Durango 1936 kultur elkarteko lehendakariak emakumeek kartzeletan bizi zuten egoeraren kontakizuna egin du, Nevers eskoletan izan zen Durangoko kartzelan izan ziren emakumeen lekukotzak aintzat hartuz.



ARRIA
ERREKA

EGILEA: MAITE IBAÑEZ

Oizen jaiotzen den erreken errekaren aprobetxamendu hidraulikoa handia izan da urteetan: errotak, burdinolak, zentral hidroelektrikoak... Berrizko erreka honetan zehar ibilbidea egiteko proposamena da ikerketa.



DURANGALDEA
2027

EGILEA: KIMETZ MUNITXA, HODEI ZENIKAONANDIA ETA DANI MAEZTU

Uztailaren 26an behin betiko onartu zen Durangoko Eskualde Egituraren Lurralde-arekiko Zati-Egitamua. Zer den eta zer eragin duen azaltzeaz gain, egileek eskualdeari ekarri liezaiokeenaren ikus-puntua plazaratu dute.



DURANGO
GELTOKI
NAGUSIA

EGILEA: JOSE MARI URIARTE

1882an hasita Durango trenbideen lotunea izan da: Durango-Zumarraga, Bilbo-Durango tranbia eta Durango-Elorrio zein Arrazolako meategietara zihoan trena. Trenak eskualdeko herri askori industriarako bidea zabaldu zien.



BOLBORA
USAINA

EGILEA: KARLOS ERIZ

Elorriar gehienek ondo ezagutzen duten usaina da. Urriaren lehenengo igandean egiten den jaia gogoratzen dute. Lan honetan, barru barrutik jaia ezagutzeko aukera dago, errebonbilloen eskutik.



ONDAREAREN
ZALANTZAZKO
ETORKIZUNA

EGILEA: JON IRAZABAL

Urteetan egin den lanari esker, ondare aberatsa daukagu eskualdean. Baina utzikeriak edo momentuko agintarien arduragabekeriak altxor asko galtzea ekarri du. Gaur egun ere kezagarria da batzuen egoera.



ZUZENBIDE
ZIBILA
DURANGALDEAN

EGILEA: GONTZAL AIZPURUA

Eskualdean ditugun zuzenbide zibil bien azterketa egin du abokatuak. Herritarron bizitzan ezberdintasun horrek duen eragina, zergatik gertatzen den eta non eta nori aplikatzen zaion argitu du.



ELORRIOKO
PETROLIOA

EGILEA: LOREA MADINA

1919. urtean Elorriko petrolio-prospekzioak egiten hasi ziren. Belgika, Alemania, Alsazia eta Errusiako behargin eta teknikariak urre beltza bilatzen zuten horretarako sortu zen Goikotxea Alzuaran enpresaren agindupean.



ATXONDO:
HIRURAK BAT

EGILEA: OIHANE BURUAGA DE SANCHA

2012ko uztailaren 5ean 50 urte beteko dira Axpe, Apatamonasterio eta Arrazola eleizateak batu eta Atxondo udalerria sortu zela. Batzeko arrazoiak zeintzuk izan ziren argitzen du artikulua honek.



anboto.iragarkilaburrak.com

Interneten eta paperean, doan: Erregistratu zaitez, www.anboto.iragarkilaburrak.com webgunean eta jarri zure iragarkia edo bidali mezua hurrengo helbide elektronikora: anboto@anboto.org. Nahiago baduzu deitu 94-623 25 23. **Paperean, ordainduta:** Iragarki laburretatik bereiztuta eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonoan.

Higiezinak

ETXEBIZITZAK

SALDU

Abadiño. Etxebizitza ia berria salgai. 4 urte. 2 logela, 2 komun, sukaldea (eskegitokia), balkoia, garajea eta trastelekua. Tel.: 615-00 72 16

Atxondo. 75 m2. 3 logela, sukaldea, egongela, komuna, balkoia. Oso eguzkitsua. Kanpora ematen du etxe guztiak. Kalefazioa. Berriztatuta eta altzairuz hornitua. 180.000 euro. Tel.: 655-73 74 47.

Atxondo. 82 m2. 3 logela, sukaldea, egongela ederra, komuna. 2 balkoi. Ganbara eta igogailua. Oso eguzkitsua. Kanpora. Berriztatuta eta altzairuz hornitua. 628-78 78 35

Berriz. 3 logela, 2 komun, sukalde berriztua, 2 balkoi, egongela handia, ganbara eta garaje itxia. Oso eguzkitsua. Tel: 647-77 73 92.

Berriz. 80 m2. Oso kokapen ona. Guztiz jantzita. Sukaldea, egongela, komun handia, 2 logela (bat ganbara, balkoia, despentsa txiki bat). Zoru erradiantea. Oso eguzkitsua. Tel.: 607-52 24 26.

Durango. Murueta-torren. 90 m2. Sukaldea (eskegitokia), egongela, balkoia, 3 logela, 2 komun. Guztiz berriztua (ateak, leihoak, horma-armairuak...) eta jantzia, eguzkitsua, bista eta kokapen ederra. Ganbara eta garajea. 686-13 89 09.

Durango. 98 m2. Oso eguzkitsua. 3 logela, sukalde-jangela, bainugela eta komun leihodunak, 2 terraza partikula. Altxariz betea, berogailuaren galdara jarri berria, hormako lau armairu, aluminiozko leihoak, atek eta zoria aldatuta. Garaje eta igerilekua. Tel.: 655-70 46 84.

Durango. 94 m2. Herriko gudarrien plazan. 3 logela, 2 komun, sukaldea (eskegitokia), egongela, ganbara eta garajea. Kokapen ona, eguzkitsua eta bista ederra. 330.000 euro. Tel.: 615 76 08 01.

Durango. Atiko zoragarria Alde Zaharrean. Erabat berrizturi-ketajantzia. Gas instalazioa egin berri. Oso argitsua. Tel.: 659-42 58 90. aotxotorena@yahoo.es

Durango. Atiko zoragarria Alde Zaharrean. Eguzkitsua eta bista ederreko terraza handiaren. Kalefakzioa eta aire egokitu. Igogailurik ez. Zaharberri-uriko eraikina. Tel.: 665-94 46 74

Durango. 3 urte. 2 logela, 2 bainugela, egongela, sukaldea eta 90 m2-ko terraza handia. 28 m2-ko garajea. Tel.: 637-41 64 38

Durango. Sasikoan. 3 logela, komuna eta egongela-jangela handia. 2 balkoi. Kalefakzioa. Garajea eta ganbara. Tel.: 679-38 23 69

Elorrio. 65 m2. Buzkantz kalean. 2 logela, komuna, sukalde-egongela. Ganbara. Igogailua. Kokapen ona. Eguzkitsua. Tel.: 94-682 12 34.

Elorrio. Babes ofizialeko etxebizitza trukatzeko durangoko kide baten bilakabil, etxea2011@yahoo.es

Elorrio. Estreinatzeaz dagoen 162 m2-ko terraza duen atikoa (73 m2). 2 logela, egongela bat, sukaldea eta 2 bainugela. Igogailua eta trastelekua. Oso kokapen ona, eguzkitsua eta bista zoragarria. 615-75 59 85 (goizez) 636-22 49 02 (arratsaldez)

Elorrio. Erdialdean. 2 logela eta 2 bainugela. 634 45 72 01

Elorrio. Edialdean. 2 logela, 2 bainugela, sukalde ekipatua. Igogailua. Trastelekua. Tel.: 657-79 39 93

Mallabia. Baserria eta 20.000 m2-ko lur zatia, oso egokia mahasti bat jartzeko, salgai. Kokapen ona. 330.000 euro. Tel.: 655-70 26 47 (20:00-22:00 bitartean). Hormigoizko estruktura eta bista ederrak.

Zaldibar. 300 m2-ko baserria berriztuta. 24.000 m2-ko lursaila. Oso eguzkitsua. Tel.: 625-70 59 97.

Durango. Monteideon 26 m2-ko garaje itxia. Tel.: 656-76 76 06.

Durango. Antso estegiz kalean. Tel.: 690-18 91 68

Durango. Partzela alluitz kalean. Tel.: 669-63 03 12

Teknologia

AUDIOA/BIDEOA/ARGAZKILARITZA

SALDU

Autorako MP3 irratia salgai. CD/MP3/WMA Pioneer deh4700mpb. Erabili gabea. Deitu: 636-2715 08.

EROSI

Cannon 1000d kameraren kargadorea . Kargadorea galdut. Baten batek saltzeko badauka: tximai@hotmail.com.

GAINERAKOAK

Bidali zure ordenagailua boliviara.

Hondatuta, zaharra bada edo zaborretara bota behar baduzu, nik jaso, konpondu eta kainaberaren bitartez bialduko dugu 2.mailako eskoletara. 655-7176 66.

Lana/negozioak

LAN ESKARIAK

OSTALARITZA

Durango. Neska gazte eskaldunabaternalan lanak egiteko prest, astean zehar eta asteburuetan. Esperientzia. Tel.: 615-71 62 32.

Durangaldea. 20 urteko neska asteburuetan, edozein ordutegitan, lan egiteko prest. Tel.: 646-82 26 28.

ETXEKO LANAK

Durangaldea. Ordu batzuetan garbitasun lanak egiteko edota umeak zaintzeko prest. Tel.: 94-681 19 98

PERTSONAK ZAINDU

Durangaldea. Neska eskalduna, fisioterapiari diplomatua. Etxez etxez errehabilitazio traumatologikoa, neurologikoa, drenaje linfatikoa, masaiak, ... egiten ditut, bakoitzaren beharretara egokituta. Tel.: 635741515.

Durangaldea. Neska gazte eskalduna umeak zaindu edota etxeko lanak egiteko prest. Goiz eta arratsaldez. Esperientzia. Gabineteko pedagogikoan egon naiz laguntzen. Tel.: 648-1313 27

Durango. 21 urteko neska eskalduna umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko, klase partikularrak zein ingeleseko klaseak emateko prest. Magisteritza ikasten. Umeekin esperientzia zabala irakaskuntzan zein kirol guneetan. Tel.: 660252793.

Durango. Lan bila nabil etxeak garbitzeko edo umeak zein pertsona nagusiak zaintzeko. Tel.: 696-75 35 30

Durango. Pertsona nagusiak zaintzeko lan bila, interna edo externa modura, orduka zein gaez. Esperientzia eta erreferentziekin. Tel.: 603-95 41 94

Durango. Psikologian lizentziatua. Durangoko neska eskalduna naiz eta prest nago irailaren 20tik aurrera umeak orduka zaintzeko, goizetan zein arratsaldetan.646-53 83 90

Durango. Andre eskalduna haurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko prest. 659-08 81 85

Durango. Andre eskalduna naiz eta pertsona nagusiak, gaixoak, ezinduak... zaintzeko prest . Urte askoko esperientzia eta lehenbailaiken hasteko prest. 699-74 57 23 (ines)

Durango. Neska eskalduna umeak zaintzeko, etxea garbitzeko zein pertsona nagusiak zaintzeko prest. Kotxearekin. Tel.: 664-14 69 04.

Durango. Emakume ardura-tsua bere burua eskaintzen du orduka eta externa bezala lan egiteko: umeak zein pertsona nagusiak zaintzeko, etxeak, taberna garbitzeko eta antzeko-etarako. 670 67 46 41 (Juana).

Durango. Neska gaztea, etxeko lanak egiteko, umeak zein pertsona nagusiak zaintzeko prest. Venezuelako neska bat naiz baina euskal herrian guztiz integratua. Esperientzia handia dut umeekin eta pertsona nagusiekin. Tel.: 667-07 45 34.

